

Gurutze Beitia

Umoreaz jardun dugu aktorearekin
KULTURA, 26




Aloñak erraz irabazi du etxeko lehen partidua

Mondrak 1-3 irabazi zuen; UDAk berriz, 2-1 galdu
KIROLA, 12-13

Markel Irizar

Bere lehen itzuliaz berba egin digu
KIROLA, 18



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko irailaren 5a • 2. urtea • 68. zenbakia • 0,90 euro

400 lagunek hartu dute ostatu Arantzazun bederatzaurrena egiteko

Arantzazuko Amaren eguna barikuan da. Ordura bitarte bi elizkizun egingo dira egunero santutegian

Gaur, astelehena, bederatzaurreneneko seigarren eguna hasiko dute Arantzazuko santutegian.

Otoitz eta hausnarketa egun garrantzitsuak dira fededun askorendako eta urteko hitzordu garrantzitsua ere bai. Aurten lurralde osoetik etorritako 400 pertsonak hartu dute ostatu Arantzazun Ama Birjinaren bederatzaurrena dela-eta.

Erromesei elizkizunetan parte hartzeaz gain, Ama Birjinaren irudia gertutik ikustea gustatzen zaie. Oroigarrien dendak ere bisitari asko jasotzen ditu egunotan.

Hilaren 9an, jende uholdea espero dute Arantzazun. Ama Birjinaren eguna ospatzeaz gain eraiki berri den kultura gunea inauguratuko du Ibarretxe lehendakariak. **2-3**

ERROMESAK EGUNERO
Oinez, bizikletan edo autoz fededun asko igotzen dira erromesaldian. Eguerdiko mezan 500 elkartzan dira

50. URTEURRENA
Aurtengo hausnarketarako eta otoitzerako gaiak basilikaren 50. urteurrenak markatu ditu

DOMEKAN JENDE UGARI
Atzo izan zen egun jendetsuena Arantzazun. Barikurako jende uholdea espero dute fraideek

LIBURUA ETA DVD-A
Arantzazuko basilikaren eraikitze lanen eta historiaren gaineko liburua eta DVDa salgai daude



LARRAITZ ZEBERIO

DEBAGOIENDARRAK LEGAZPIKO ARTZAIN EGUNEAN

Hiru debagoiendar omendu zituzten atzo Gipuzkoako Artzain Egunean; Pedro Andrinua, M^a Luisa emaztea eta Juan Zelaia. Pedrok (lehen ezkerretik) Emilio eta Domingo anaiekin batera jaso zuen saria. Azken bi horien emazte Lourdes eta Josefa ere han ziren. M^a Luisa eta Juan Zelaia ez ziren joan osasuna kontuengatik. **8**

Gaur laga beharko dute gazteek Oñatiko gaztetxea **22-23**

Eguaztenean hasiko dituzte Gatzagarrek Andramaixak **9**

Reala eta Eibar nor baino nor eguaztenean Atxabalpen

Eguaztenean, hilak 7, 18:00tatik aurrera Realak eta Eibarrek lagunarteko partidua jokatuko dute Atxabalpen Kilometroen alde. Bai donostiarrek eta baita eibartarrek egin dituzten azken fitxaketak ikusi ahal izango dituzte Arrasateko zelaira hurbiltzen direnek: Realeko Alvaro Novo eta Eibarreko Jorge Azkoitia eta Julen Gonzalo. Ibarreko bost jokalaria ere han izango dira. **14**

FordFocus berria. Kalitatea bete-betean.



MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Goizteko pentasatuak,
irautoko eginak



GEUREAN

- Zuhaitz Errasti aretxabaletarrak 22 egun beteko ditu gaur gose greban | 8
- Arrasaten itxi egingo dute bihar Garibai kalea ibilgailuendako | 9



Ibai Redondok
Venezuelan,
Munduko gazteen
jaialdian, bizitakoak
kontatu dizkigu | 7

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



AINZANE AGIRRE

Arantzazuko Ama Birjinaren irudia gertutik ikusteko aukera une garrantzitsua da fededun askorendako.

BEDERATZIURRENA ARANTZAZUN | GAUR, ASTELEHENA, BEDERATZIURRENAREN SEIGARREN EGUNARI EKIN DIOTE

Domekan jende asko ibili da eta barikuan jende uholdea espero dute

400 pertsonak hartu du aurten ostatu Arantzazun bederatziurren osorako. Fededuna izan ala ez, asko dira egunotan santutegira oinez, bizikletaz edo autoz igotzen direnak

Larraitz Zeberio

Abuztuaren 31n, eguaztenean, ekin zioten Arantzazuko Andre Mariaren 2005eko bederatziurrenari. Aurten, 400 pertsonak hartu du ostatu bederatzi eguneko eliz ospakizunetan parte hartzeko eta asko dira egunero edo egun pasa santutegira igotzen diren bisitariak. Ostalarien esanetan, iaz bezainbeste jende dabil aurten. Fraide eta bisita-

rien ustez, ordea, parte-hartzeak behera egin du. Edonola, eguneko ekitaldi nagusiak, eguerdiko Meza Nagusiak, 500 fededun biltzen ditu egunero eta domekan aurreikuspen guztiak motz gelditu ziren. Fraideek jende uholdea espero dute barikurako, hilaren 9a.

400 AUZOKIDE BERRI

Oporraldiak bailiran hartzen dute fededun askok Arantzazu-

ko egonaldia. Urtetik urtera egin ohi dute gehienek logelen erre-serba eta eskaera berriek izena eman behar izaten dute txanda noiz hartuko zain.

Goizeko 9:00etan jaikitzen dira eta gehienek bi meza entzuten dituzte egunero. Eguneko gainerako orduak paseatzen, karta jokoan edo lagun arteko berriketan ematen dituzte gehienek. Badira, tartean, otoitzean eta gogoetan ordu gehiago ematen dituztenak.

ERROMESALDIA EGUNERO

Joan den zapatuan Arabako Barrundiatik etorri ziren 225 lagun. "Batzuk oinez etorri dira eta beste batzuk autobusean", azaldu digu Antonio fraideak. "13:30ean meza emango dugu beraiendako".

Egun beteko erromesaldietan bisitariak Ama Birjinaren irudia gertutik ikusteko aukera asko eskertzen dute. Jende mor-
doia igotzen da erretaularen atze-

Hilaren 9an inauguratuko dute kultura gune berria Arantzazun

Arantxa izeneko emakumeek urriaren 23an egingo dute aurten urteroko bazkaria

ko aldetik irudia bertatik bertara ikustera. Ohitura da, aldi berean oroigarrien dendara hurbiltzea. Askok dira, oraindik ere, Arantzazuko gozokizko harriak, errokilak edo ilobendako opari txikia erosi eta opariok bedeinkatuta etxera eramaten dituzten aiton-amonak.

FRAIDEAK JENDARTEAN

Egunok oso bereziak dira Arantzazuko Frantziskotarrendako. "Jende gehiago ibiltzen da", esan digu Antonio fraideak, "Ez al dakizue Iruña, Gasteiz, Donostia eta Bilboren ondok Arantzazuko Aste Nagusia datorrela?", esan digu irribarrez. Goizeko 7:30ean esnatzen dira eta beti aurkitzen dute norbait berriketarako prest elizaren inguruan paseatzen dabilzan bisitarien artean.

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA

• OTOITZA ETA AISIA ESKAINTZEN DITU ARANTZAZUK



AITORTZA. Otoitzerako eta hausnarketarako egunak dira Arantzazuko santutegian. Goizeko 11:00etan irudiak jasotzen duen aitortzaren ospakizuna egiten da eta 12:00etan Meza Nagusia. Elizkizun honek biltzen du jende gehien egunotan. 500 lagun elkartzten ditu ospakizunak santutegian. Arratsalde, egun pasa etortzen diren erromesek Andre Mariari azken agurra egiten diote 17:00etan. Iluntzean ere, 19:30ean, elizkizuna egiten da.



OROIGARRIAK. Arantzazu kokaleku turistikoa ere bada. Oroigarrien dendan bitxiak saltzen dira gehien. Autoa bedeinkatzera etortzen direnek Ama Birjinaren irudia jasotzen duen plakatkoa erosten dute maiz eta, azkenaldian, oso modan daude arrosarioak. "Bisbalek lepotik zintzilik eramaten dituenetik asko saltzen ditugu. Gazteek ez ezik nagusiek ere eskatzen dizkigute lepoko moduan eramateko", esan digu bertako saltzaileak.

URTEURRENA | ARANTZAZUKO BASILIKAK BERROGEITA HAMAR URTE EGIN DITU

Arantzazuko basilikaren eraikitze lanen historia jasotzen duen liburua argitaratu dute

Manolo Pagolak egin du liburua. 'Ermitatxo bat eidazu' DVDa ere atera dute


Asteleheneko Goienkaria

La nueva basílica de Arantzazu. Su construcción y financiación liburua idatzi du Manolo Pagolak Arantzazuko basilikaren 50. urteurrenean. Atal bitan basilika berriaren eraikuntza eta finantzaketaren gaineko datuak jaso ditu, 200 argazkiz lagunduta. Liburua 35 eurotan dago salgai liburudendetan. 1.000 ale kaleratu dituzte.

50 URTEKO HISTORIA

Pello Zabalak aukeratutako musikak laguntzen du Arantzazuko basilikaren gaineko historia jasotzen duen DVDa. Ordu erdiko erreportajea 1834. urtean hasten da. Orduan izandako sutearen ondoren Arantzazu nola geratu zen erakusten da, bai eta Pablo Ruiz de Gamizek egindako proiektua ere. Ondoren etorri ziren basilika, seminario berria, Lucio Muñozen absidea, Oteizaren apostoluak...

Arantzazu. Ermitatxo bat eidazu erreportajearen haria Iñaki Beristainek egin du eta euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu dute. 15 eurotan dago salgai eta denda gutxi batzuetan zabaldu dute. Hala ere, gura duenak Arantzazun eskatu dezake.



Egubakoitzean egin zuten aurkezpena Iñaki Beristain eta Manolo Pagolak.

OIHANA ELORTZA

• HORRELA ESAN DIGUTE



LUKE | BERGARA

Moja da Bilbon eta badira 12 urte bederatziruenera etortzen dela. "Hemen betetzen naiz. Paraje bikaina da otoitzean bizi eta Jainkoaren hitza hausnartzeko".



JOSE M^a, JOXEPA, JUANITA ETA SANTIAGO | AZKOITIA ETA AZPEITIA

"Bederatzi egunotarako etorri gara Arantzazura. Badira bost urte jarraian etortzen gara. Lehen, baserriarekin, ezinezkoa zen baina orain bai. Bi meza entzuten ditugu egunero eta gainerako orduak paseatzen ematen ditugu. Alde ederra dago!". Laukotea bat dator: "Iaz baino jende gutxiago dabil aurten".



BEA ETA CARLOS | OSINTXU

Hirugarren urtea dute Beak eta Carlosek Arantzazuko Bederatziurrenean. "Gu ez gara iluntzeko elizkizunera besterik joaten. Nahikoa da. Gainontzeko denbora berrikeretan eta paseatzen ematen dugu. Aurten jende gutxiago dabil".



FELISA, M^a ANTONIA ETA JUANA | ANOETA, ATAUN ETA LAZKAO

Badira 15 urte Felisa etortzen denez geroztik. M^a Antoniak eta Juanak zortea izan dute aurten eta logela lortu dute mojen egoitzan. "Elizkizun guzti-guztietan hartzen dugu parte. Gainera denbora dugu paseatu, atsedean hartu eta berrikeretan egiteko".



MARTÍ FAMILIA | HOSPITALET DEL INFANT (TARRAGONA) | Jaime Martí eta Coia Poblet senar-emazteak eta haien seme-alaba Pol eta Abril gosaltzen harrapatu genituen Bergarako Lamaño-Etxeberri landetxean.



GARCIA FAMILIA | ALCOY (ALACANT) | Jose Garcia, haren emazte Loren senar Paco Garcia (Joseren anaia) eta alaba Andrea. Atzo, domeka itzuli

TURISMOA UDAN | %10 EGIN DU GORA AURTENGO UDAN TURISMOAK DEBAGOIENEAN. OHI BEZALA, KATALUNIATIK ETORRI DA BISITARI GEHIEN

“Hemengo paisaiak batean txunditu eta bestean zartakoa ematen dizu”

Urtetik urtera goruntza doa gure ibarrera datorren bisitari kopurua. Zerk erakarrita etortzen dira? Hauxe erantzun digute oporraldia gurean igarotzen diharduten familia batzuek

Monika Belastegi

Martí familia / Katalunia

Aurreko astelehenean iritsi ziren gurera. Hospitalet del Infantetik (Tarragona) etorri dira eta hilaren 10era bitartean izango dira hemen. Jaimek eta Coiak eta haien alaba Abrilek eta seme Polek Bergaran hartu dute ostatu, Lamaño-Etxeberri landetxean. “Duela zortzi urte etorri ginen lehenengoz Euskal Herrira”, diosku Coiak; Zugarramurdi ezagutu genuen eta baita Donostia eta Hondarribia ere. Izugarri gustatu zitzaigun eta horregatik erabaki dugu berriz etortzea, gehiago eta hobeto ezagutzeko”.

Egonaldia landetxean egin nahi zutela garbi zeukaten eta Gipuzkoan edo Bizkaian egon behar zuela. Bestalde, landetxeak baldintza jakin batzuk ere izan behar zituen: “Animaliak

izatea nahi genuen, sukaldea izatea eta etxeko familiarekin hartu-emanerako aukera. Bestalde, hiri handietatik urrun egotea ere gure beste nahietako bat zen. Hala, Interneten begiratu eta Lamaño-Etxeberri aukera egokia iruditu zitzaigun”, esan digu Jaimek.

“Kontrastez jositako herrialdea da. Askok gustatu zaigu ikusitakoa”

“Harritu egin gaituzte, besteak beste, azpiegiturek eta zaharren egoitzek”

mek. Halaxe iritsi ziren Debagoienara.

Bilbon, Landan, Deban, Mutrikun, Lekeitio eta Markinan egon dira eta datozen egunetan Durangora, Omara, Gernikara, Donostiara eta Karrantzara joateko asmoa dute. Hasiera batean, behintzat, ez dute aurreikusitako Debagoienez barrena osteratxerik egiterik.

Izugarri gustatu zaie ikusitakoa eta hainbat gauzek harritu egin dituztela ere aitortu dute: “Azpiegiturek, zenbat euskara hitz egiten den, zaharren egoitzak zein dotoreak diren eta industria kopuruak harritu gaitu”. Bestalde, kontrastez jositako herrialdea dela diote; “Batetik, oso ederra da, paisaia zoragarria du, baina bestetik, belarrondokoa ere ematen dizu, batez ere industria ugari dagoelako eta oso sakabanatuta, gainera”.

Garcia familiak / Alacant

Garcia anaiek, Josek eta Pacok, senitartekoak dituzte Antzuolan. Zapatuan Antzuolako lehengusuetako bat ezkondu zitzaizen eta haren ezkontzara etorri behar zirela aitzaki hartuta astebete eman dute gurean. Atzo itzuli ziren Alcoyra.

Familiarekin etorri dira: Jose, emazte Loren eta alaba Carlarekin eta Paco, emazte Alicia eta alaba Andrearekin.

Josek ezagutzen zuen Debagoiena eta baita inguruko herri batzuk ere, lanarengatik etorri behar izan duelako behin edo behin. Gainerakoak, berriz, inoiz

egoteke ziren edo bisita oso laburren bat eginak.

Bergarako Lamaño-Etxeberri landetxean eman dute astea. Ez zuten hotelera joan nahi, landetxe batera baizik. Lehenengoz izan dira eta izugarri gustatu zaie: “Umeekin etortzeko oso leku polita eta egokia da hau. Baserrir



Euskal Herria kontrastez jantzitako lekua dela uste du Martí familiak.

TURISMOA DEBAGOIENEAN



M.B.

Ruiz eta alaba Carla eta Alicia Genaro, ziren Alcoyra.



M.B.

JUANJO BARCENILLA ETA ANA LANCHAS | IRUN ETA BERA | Asteburua igarotzera etorri dira. Gatzagan eman dituzte bi egunok eta lehenengoz etorri dira ibarrera.

MARIAN MARTIN |
ATERBE LANDETxea

“Geografikoki ondo kokatuta dagoelako dator turista asko ibarrera”

M.B.

Nola doa udako denboraldia?

Oso ondo. Abuztuan, bete-ta izan dugu. Aurrez izena emandako norbaitek ere huts egin digunean berehala bete dugu hutsune hori.

Trailean, dena den, behe-rakada igarri egingo da. Oraindik ere datorren astean egongo da mugimendu pixka bat, baina gero moteldu egingo da. Abuztua izaten da hila-beterik jendetsuena.

Nongo jendea etorri da?

Bartzelona eta Tarragonatik, batik batik. Baina baita beste toki batzuetakoak ere: Valentzia, Frantzia, Belgika...

Zein da bisitarien profila?

Adinari dagokionez denetarik dago: gazteak, adin ertainekoak eta nagusiagoak. Bikoteak etortzen dira gehien eta batzuk seme-alabekin.

Zeren bila datoz hona turistak?

Debagoiena baino, Euskal Herria ezagutzera etortzen dira. Noski, hemen egonda inguru hau zertxobait ikusten dute, baina bereziki Donostia ezagutu nahi izaten dute. Lotarako gure ibarra aukeratzeko badute da geografikoki ondo kokatuta dagoelako, erdian dagoelako.

Zer nabarmentzen dute?

Euskaldunen izaera, hotza eta itxia zela uzte zutelako; eta natura, herriak eta industria nola uztartzen diren.

giroa da, lasaia eta deskonektatzeko balio du. Gainera, tratua oso zuzena da, ez hoteletan bezain hotz,” esan zigun Josek. Interneten begiratu eta hantxe aurkitu zuten landetxea. Gainera, Antzuolatik gertu dago eta horixe ere komeni zitzaizen Antzuolan ezkontza zutela kontuan hartuta.

Hiru Tenpluen ibilbidea egin dute eta Oñati, Bergara, Debatik Hondarribiara arteko kosta zatia eta Elorrio ikusi dituzte, besteak beste. Ikusitakoan nabarmendu dute ingurunearen berdetasuna eta ondare artistikoa:

“Eraikin oso ederrak daude eta oso ondo zainduta, gainera”, azaldu zigun Lorenek.

Kritika txikia ere egin zuten Alacanteko familiok: “Leku batzuk ez daude ondo seinalatuta. Urkulura joaterakoa, esaterako, galdu egin ginen”.

“Ondare artistikoa aipagarria da eta oso ondo zainduta dago, gainera”

Juanjo Barcenilla eta Ana Lanchas / Euskal Herria

Lehenengoz etorri dira Debagoienara. Egubakoitz iluntzean etorri ziren, asteburua igarotzera, eta Gatzagako Aterbe landetxean egon dira.

“Asteburua lasai igarotzera etorri gara Gatzagara eta aurkitu dugu”

Ibarrak berak baino landetxeak erakarrira etorri dira: “Juanjoren urtebetetzea da, eta ospatzeko, etxetik kanpora eman nahi genuen asteburua. Hala, Interneten begiratu eta landetxe honek eskaintzen dituen zerbitzuek erakarrira – hala nola, masajea, sauna eta bainu turkiarra – etorri gara. Gainera, herri txiki eta lasaia nahi genuen eta horixe da aurkitu duguna” azaldu zigun Anak.

Gatzaga ezagutu eta Gatz Museoa ikusteko aprobetxatu dute asteburua. Baita Gatzaga inguruetan lasai paseatzeko ere.

Turismoak %10 egin du gora gurean udan; ohi bezala, Euskal Herriatik eta Kataluniatik etorri da turista gehien

Arantzazu, Oñati, Bergara eta Gatzagako Turismo Bulego eta Informazio guneek emandako datuen arabera, gora egin du aurten udan turismoak gurean (ekainetik abuztura bitartean). Batez beste %10eko igoera izan da. Kontsulta kopuruari dagokionez, 18.189 jaso dituzte esandako bulegoetan: Arantzazun, 9.866; Oñatin, 5.745; Bergaran, 2.428 eta Gatzagan 150. Jatorriari dagokionez, ohi bezala Kataluniatik etorri da bisitari gehien eta horren ondotik Madriletik. Europari dagokionez, Frantziatik etorri da turista gehien.

Bisita gidatuak: herriko ondare artistikoa zein historikoa eta natura ezagutzeko modu oso egokia

Bisitari kopuruak gora egin duen bezala, Turismo Bulegoek eskaintzen dituzten bisita gidatuak ere gora egin dute: Bergarako Turismo Bulegoan 47 bisita gidatu egin dituzte (355 lagunendako); Gatzagan ere hainbat lagunek jaso dituzte Gatz Museoren gaineko azalpenak; Oñatiko bulegoan, berriz, 200 bisita gidatu egin dituzte herrian barrena (2.988 lagunendako). Oñatiren kasuan, Natura Eskolak ere ibilaldi gidatuak eskaini ditu aurten lehenengoz herriko natura inguruneak erakusteko: ibilbideotan 156 lagunek parte hartu dute.





Garbiguneetako sarrerako seinaleek argi adierazten duten arren, zaborra kanpoan laga du abuztuan hainbatek.

Garbiguneen kanpoaldean zaborra pilatzea salatu dute

Mankomunitateak salatu duenez jendeak ez du Garbigunearen ordutegia errespetatzen eta abuztuan hondakinak kanpoan batu dira

Asteleheneko Goienkaria

Garbiguneetako kanpoaldeak hondakinez beteta egon dira abuztuan. Horrela salatu du Debagoieneko Mankomunitateak eta antza denez ez da hori gertatzen den lehenengo aldia.

Abuztuan garbiguneek ohiko ordutegia aldatzen dute eta "horren berri kartelen bidez eta Mankomunitatearen webgunean ematen da", azaldu dute Mankomunitatetik. Hala ere, "jendeak ez du ordutegia errespetatzen eta ohiko legez bertara joan eta itxita topatuz gero, hondakinak Garbigunearen kanpoaldean

lagatzen dituzte hondakin mordo pilatzeraino". Mankomunitatetik salatu dutenez, "Garbigunearen atean bertan jartzen du Garbigunetik kanpo ez uzteko hondakinik eta nahikoa da pertsona batek zaborra kanpoan uztea atzetik datozenek ere hori egiteko. Horregatik, ordutegiak errespetatzea eskatzen diegu herritarrei".

OHIKO ORDUTEGIA

Abuztua pasatuta Debagoieneko Garbiguneek ohiko ordutegia erreperatu dute. Hortaz, eta urte amaiera arte, Arrasateko Ibarreta garbiguneak, Bergara-

ko San Kristobalgoak eta Oñatiko Urrutxukoak astelehenetik egubakoitzera goizez 9etatik 12:30era egongo dira zabalik eta arratsalde, 4etatik 7etara.

Zapatuetan aldatu egiten da ordutegia eta bakarrik goizez egongo dira zabalik hiru Garbiguneak: 09:00-13:30.

Debagoieneko Mankomunitatetik adierazi dutenez, "hondakinak Garbiguneen kanpoan uzteak arazoak sortzen ditu bai zerbitzuan bai eta erabiltzaileengan ere. Hortaz, zerbitzuaren arau eta ordutegiak errespetatzea eskatzen dugu".

Bestelako informaziorik behar izanez gero Garbiguneetako ondoko telefonoak erabili daitezke: Ibarreta (Arrasate) 943 77 11 43; San Kristobal (Bergara) 943 76 44 42; Urrutxu (Oñati) 943 78 36 67.

• MARIXEKA EGUNA OSPATU ZUTEN ARAMAION



AINZANE AGIRRE

GURE ATERPEA ELKARTEAK EGITEN DU JAIA

Atzo ospatu zuten, Gure Aterpea elkartearen ekimenez, Marixeka eguna. Bezperan urteko batzarra egin zuten eta hurrengo egunean bazkideen bazkaria. Hala ere, aramaioar asko hurbiltzen da Marixeka egunera eta atzo ere horrela izan zen. Goiz partean gutxiago, baina arratsalderako guraso eta ume talde polita elkartu zen Gorriti eta bere animaliak ikustera. Maria eta Itziar Gardokiren erromeriak eguzkia sartu arte iraun zuten.

• BI MILA IBILGAILU EGUNERO EPELEKO ORDAINLEKUAN



AINZANE AGIRRE

62.000 IBILGAILU IZAN DITU AP-1 AUTOBIDEAK

Uztailaren 29an ireki zuten Bergaratik Arrasaterainoko autobide zatia eta 2.000 ibilgailu igaro dira egunero Epeleko ordainlekutik. Bidegi enpresatik esan dutenez, "kontuan izan behar da oporraldian asko igartzen dela ibilgailu kopuruaren beherakada Debagoienean. Izan ere, Epelerainoko zatia inauguratu aurretik Eibartik Bergararako zatia 7.000 ibilgailuk erabili zuten egunero. Aldea nabarmena da, baina abuztuko hilabetea delako da".



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU



Udako oporrak brigadista legez aritzeko aprobeztatu ditu bergarar gazteak. Askapenarekin Venezuelara joatea erabaki zuen, beste hamabi euskaldunekin batera.

Hilabete egin du Chavezen herrialdean eta astebete Caracasen egin den gazteen munduko jaialdian. Berba egitea ere tokatu zaio; Euskal Herria gure eskola taldeko kidea

denez hezkuntza sistema propioaren gainean aritzeko aukera izan zuen beste nazioetako gazteen aurrean. Venezuelarrek Chavez 'jainkotzat' dutela kontatu digu handik bueltan.

IBAI REDONDO | GAZTEEN ETA IKASLEEN MUNDUKO TOPAKETAN IZAN DA VENEZUELAN

"Venezuelan herritarrek jainkotzat daukate Chavez presidentea"

Marijo Deogracias

Venezuelan egin den gazteen eta ikasleen munduko jaialdian parte hartu duzu. Nola sortu zitzaizun aukera hori?

Askapenarekin internazionalista legez joan nintzen Venezuelara eta hara joan aurretik, gazte eta ikasleen munduko jaialdia egingo zela bagenekien. Hortaz, han egonda, jaialdira joatea erabaki genuen munduko beste gazte askorekin egoteko aukera aparta zelako.

Eta nola hartu duzu parte jaialdi horretan?


Alderdi komunistek antolatutako jaialdia izan da; astebeteko. Lau urtetik behin egiten da eta aurten Venezuelan egin dute. Egunez hainbat herrialdetako gazteek euren esperientzien berri ematen zuten milaka lagun aurrean. Hasiera baten euskal ordezkariak legez parte hartu nahi izan genuen, baina ez genuen horrelakorik lortu. Espainiako ordezkariaren partaide legez egoteko aukera izan genuen -Ezker Batuak horixe eskaini zigun-, baina hori ere ez genuenez onartu, nazioarteko prentsa txartelarekin sartu ginen: gaztesareaneko kide legez sartu ginen jaialdira Askapenarekin joan ginen hamahiru lagunak.

Nik neuk ez nuen nire diskurtsoa prestatuta eraman, baina han geundela "euskaldunak zaretela eta, diskurtsoaren amaieran taulara igo eta zuen herriaren berri eman ezazue" esan ziguten eta horrela izan zen. Interes handia erakutsi zuten hezkuntza sistema propioaren gainean. Azken batean, Venezuelatik ez dira herritar guztien esku egon eta orain dela gutxi sortu dute unibertsitate Bolivarianoa. Hori ere Chavezen ekimenez sortu da.

Nola bizi izan duzu chavismoa?

Hango herritarrek Chavez jainkotzat daukate. Chavez gobernuan dagoenetik medikuak daukate hiritarrek. Gu bizi izan garen auzoan esaterako, 5.000 biztanleko auzoan, bi ambulatorio egin dituzte. Kubatik milaka mediku joan da Venezuelara.

Chavezek lortutako onuren gainean aritzeko eskatu ziguten; interes handia daukate Chavezen irudi hori zabaltzeko. Jakin badakite Europako hedabideek ez dutela begi onez ikusten Chavezen lana; hortaz, hiritarrek interes berezia daukate Chavezek lortu dituen onurak agerian lagatzeko"



Astebetez Venezuelako hondartzez gozatzeko astia ere hartu du Ibaik.

tzeko eta Venezuelari egin dion ona erakusteko. Azken batean, Venezuela herri oso aberatsa da, baliabide asko dituen, baina baliabide horiek kanpotarrek gestionatzen dituzte eta Vene-

zuelako herria txirotu egin dute. **Jaialdian parte hartzeaz gain, zer egin duzu brigadista izanik?**

Lehenengo astean hango hedabideetara, irrati eta telebistetara jo genuen. Jakina, tele-

bista chavistetara, ze, besteek kasurik ere ez digute egin. Euskal Herria erreferentetzat dute han arlo askotan ekimen ugari landu direlako gurean. Euren lehentasuna, jakina, jatekoa lor-

"Munduko beste gazte askorekin egoteko aukera aparta izan da gazteen jaialdia"

"Hiritarrek interes berezia daukate Chavezek lortu dituen onurak agerian lagatzeko"

"Baliabide asko ditu Venezuelak, baina kanpotarrek gestionatzen dituzte"

"Euskal Herria erreferentetzat dute ekimen ugari landu direlako gurean"

"Irakasleak behar dituzte eta eskatu ere egin ziguten Venezuelara bidaltzeko"

"Indigenei Chavezek astoak oparitu dizkie kafe bila joatea errazteko"

tzea da, baina hezkuntza sistema zabaldu nahi dute eta eskatu ere egin ziguten irakaslerik ezagutuz gero Venezuelatik irakastera joan dadin animatzeko.

Bigarren astean gazte eta ikasleen munduko jaialdian izan ginen. Iluntzeetan musika jaialdiak ere egon dira, baina guk ez dugu horietan parte hartu.

Hirugarren astean oihaneko indigenekin izan gara. Hain justu hegazkinak istripua izan zuen komunitatearekin. Esperientzia gogorra, baina aldi berean aberasgarria izan da: jatekoa justu justu daukate, baina harrera bikaina egin digute. Horrelako esperientziak daukazuna baloratzen laguntzen dizute. Imajinatu, lortzen duten dirua kafea saltzetik ateratzen dute, baina kafe bila bi eguneko ibilbidea egin behar izaten dute. Orain Chavezek astoak oparitu dizkie eta poz-pozik daude.

Ohiko turismoa ere egingo zenu-ten bada?

Azkeneko astean hondartze-tara joateko aprobeztatu genuen, Chichirivichen. Han ere euskaldunak parean! Arrasateko jendea topatu genuen. Bost egun bikain egin genituen hondartzan.

Han ikusitakoa sarean ere zabaldu duzue.

Gaztesarean hasi ginen bidaiaren berri ematen eta datozen bi hilabeteetan ere han ikusi eta entzundakoa gurean zabaltzeko nahia daukagu. Venezuelak bizi duen egoeraren berri emateko asmoa daukagu eta horretarako hedabideak erabiliko ditugu; hango gazteak ere aldaketa prozesu bat bizitzen ari dira eta hori ezagutu dugunez, horren berri emango dugu. Informazio gehiago duzue <http://www.gaztesarea.net/bereziak/bolivia05> helbidean.

Berriz ere joango zinateke orduan brigadista moduan?

Esperientzia aparta izan da. Hala ere, datorren urtean berriz ere joatekotan, dirua batu behar... Pixka bat garestitxoa ateratzen da bidaia. Baina horrelako esperientzia bat izatera animatuko nuke gazte jendea.

Munduko beste herrialde batzuetako gazteen berri jasotzeko esperientzia oso polita izan da eta, gainera, Venezuelatik bizi duten egoeraz jabetzeko balio izan dit bidaia honek. Inork nahiko balu, Askapenak esaterako, apirilean ateratzen ditu brigadisten bidaiak eta plazak mugatuak izaten dira.

GIPUZKOAKO ARTZAIN EGUNA | ORDEZKARITZA HANDIA IZAN ZUEN DEBAGOIENAK DOMEKAN LEGAZPIN

Hunkituta jaso zuen atzo omenaldia Pedro Andrinuak Artzain Egunean

Omenduetako bi izan arren, M^a Luisa Iraolagoiti eta Juan Zelaiak ez zuten joaterik izan

Enkantean bost buruko urruxa lotea 780 eurotara iritsi zen. Ahariak 290-500 euro bitartean saldu ziren

Larraitz Zeberio

Atzo, domeka, egin zen Legazpin Gipuzkoako Artzain Eguna. Latxa arrazako 10 artaldetako buruak egon ziren ikusgai, mutur beltzak zein mutur gorriak. Azoka, berriz, 28 artisau eta ardiki produktu saltailek osatu zuten.

Debagoienak ordezkari zabalak izan zuten Artzain Egunean. Oñatiko Madina eta Gumiztegi baserriek hamabina ardi buru eraman zituzten azokara. Fernando Lizarralde oñatiarraren ezta ere salgai egon zen azokan.

GAZTEAK ENKANTEAN

Erosleen gaztetasuna deigarri gertatu zen plazan. Latxa arrazako 35 urruxa eta 5 ahari jarri ziren enkantean, baita denak saldu ere.

Artzain nagusien txanda omenaldiekin batera iritsi zen. Hamahiru lagunek jaso zuten omenaldia, tartean hiru debagoien-darrek: Idahon 10 urtez artzain aritutako Pedro Andrinuak eta bere emazte M^a Luisak zein Arantzazuko Gumiztegi baserrian diharduen Juan Zelaiak. Azken biek ez zituzten opariak jaso osasun eta adin kontuak medio.

Artzain txakur lehiaketan Oñatiko Jose Luis Madinabeitia izan zen debagoiendar bakarra eta 6. egin zuen. Saria Azkoitiko Ramon Larrañagak eraman zuen.

Esandakoa

"Ekitaldi oso polita izan da eta hunkigarria niretzat. Oso gogoan ditut Idahoko 10 urteak"

PEDRO ANDRINUA | OMENDUA

"Azoka polita izan da eta oso jendetsua. Nire iritziz, ordea, ekitaldi gehiegi egin dira batera"

NICOLAS SEGUROLA | ARANTZAZUKO ARTZAINA



Pedro Andrinuak pozik jaso zituen artzain makila, lore sorta eta diploma.

LARRAITZ ZEBERIO

ARTZAIN EGUNEAN HAINBAT ERAKUSKETA ETA LEHIAKETA EGIN ZIREN



APUSTU POLITA. Ikusizun berezia eskaini zuten Tolosako Iker Olaetxeak eta Zeanuriko Jon Etxebarriak. Guraizeekin batak eta makina elektrikoarekin besteak 5 eta 11 ardi mutiltzeko lana hartu zuten, hurrenez hurren. Bizkaitarrak irabazi zuten. Mutiltzeko makinak onak dira nonbait!



GAZTA LEHIAKETA. Elgoibarko Jesus Ansolak eraman zuen Idiazabal jatorri-izeneko Gipuzkoako 21. ardi gazta lehiaketaren sari nagusia. 32 gazta aurkeztu ziren lehiaketara, tartean Ramon Ugarte eta Nicolas Segurola oñatiarrenak. Azken honek epaimahai gaztearen saria jaso zuen.

Zuhaitz Errastik hogei kilo galdu ditu dagoeneko

M.B.

Gaur, astelehena, hogeita bi egun beteko ditu gose greban Zuhaitz Errasti Aretxabaletako presoak eta orain arte 20 kilo galdu ditu. Uztailearen 28an atxilotu zutenetik, aurrenekoz eman diete familiarakoei bisitarako baimena eta asteburuan Nanteseko espetxean egon dira gaztearekin. Argal dagoen arren, bere asmoei tinko

eusteko gogoz dagoela aurreratu dute Askatasunako kideek eta isolamendua amaitzeko data ematen dioten artean greban jarraituko duela ere bai.

Atxilotu eta egun gutxira eraman zuten Nantesera eta orduetik dago isolamenduan. Hala, espetxeko zuzendaritzari isolamenduarekin bukatzeko eskaria egin zion. Zuzendaritzak abuztuaren 15ean erantzun zion ziola

esan arren, ez zuen erantzunik jaso eta grebari ekin zion. Bestalde, espetxe horretan dagoen euskal preso bakarra da.

Eguenetik zapatura bitartean elkarretaratzeak egin dituzte hainbat herritarrek Aretxabaletan protesta gisa. Atzo manifestazioa ere egin zuten. Bestalde, isolamendu egoerak dirauen bitartean elkarretaratzeak deitu dituzte 19:00etan, Eroski parean.



Zuhaitzen egoera salatzen dituzten bilkurak egin dituzte asteon.

MIRARI ALTUBE

Albiste izango da

ARRASATE | GAUR AMAITZEN DA

Portugalera bidaia antolatu dute San Andres parrokiako kideek

Arrasateko San Andres auzotarrek, Portugalera bidaia antolatu dute hil honetarako. Parrokiaren bitartez antolatu dute eta ize-na emateko ere San Andres auzoko parrokiara jo behar dute interesatuek.

Irteera eguna irailaren 19an da eta astebeteko bidaia izango da, domekara arte. Lisboa, Estoril eta Evora hiriak ezagutzeko asmoz antolatu dute irteera. Informazio gehiago gura duena San Andres parrokiatik pasa dadila lehenbailehen, gaur amaitzen baita izenematea.

GATZAGA | EGUAZTENEAN HASIKO DIRA JAIK

Andramaixak ospatuko dituzte eguaztenetik aurrera

Herriko jaiak dituzte Andramaixak Gatzagan eta eguaztenean hasiko dira Rafleren Ezkila emanaldiarekin. 19:00etan izango da Dorletako santutegian Nobena. Eguenean otxandiarren eta gatzagarrren arteko lehia jokatu da eta Txinparta taldearen berbena egongo da iluntzean. Egubakoitzean jokatu da txirrindularitza lasterketa. 20:00etan Karra Elejalderen ikuskizuna egongo da. Gauean rock kontzertua antolatu dute: Arian Rock, 23F, Show Business eta Malenkonía.

Zapatuan egingo dute herri afaria gatzagarrek eta domekan izango da meza nagusia Dorleta Santutegian. Hitzordua: 12:30etan. Arratsaldean pilota partidak jokatu dira.

OÑATI | EGUENEAN HASIKO DIRA

Atzeko kaleko jaiak ospatuko dituzte oñatiarrek asteburuan

Eguenean hasi eta irailaren 11ra bitartean ospatuko dituzte Atzeko kaleko jaiak Oñatin. Eguenean arratsaldeko 4etan hasiko dira jaiak; zinta lasterketa jokatu da orduan. 18:00etan irristagailu lasterketa egingo dute eta txorimalo eta erraldoiekin batera auzo poteoa ere antolatu dute. Gauean Lendakaris muertos, Show Business eta Cool Panic taldeak arituko dira kontzertuan.

Egubakoitzean, goizeko 7etan, Arantzazura erromesaldia egingo dute. Gaueko kontzertuan Los Padrinos, Radio Wings eta Discipulos de Dionisos egongo dira. Zapatuan salda banatuko dute Naparreneko kantoian eta 20:00etan hasiko da V. garagardo festa. Gauez rantxerak dantza egiteko aukera egongo da eta domekan pailazoak eta txokolatada egongo dira.

ARAMAIO | GAUR, BIHAR ETA ETZI TELEBISTAN

Alaia jubilatuko elkarteak kideak telebistan izango dira gaur

Aramaioko Alaia jubilatuko eta pentsionisten elkarteak kideak ETBko *Date el bote* saioan izan ziren joan zen astean, eta gaur, bihar eta etzi aterako dira telebistan. Publikoan izan ziren Aramaioko hamabost emakumezko eta bost gizonezko, Langraizko erretiratu talde batekin batera. "Autobusa bila etorri zitzaigun eta luntxa eta bazkaria eman zizkiguten ETBkoek", azaldu digute. "Uda amaitze aldera egin dugun irteera izan da eta telebista programa bat nola egiten den eta telebistako platoak nolakoak diren eza-gutzeko aukera izan dugu", azaldu digute erretiratuek.

ARRASATE | BIHAR ETA EGUENEAN MOZTUKO DUTE

Garibai kalea itxi egingo dute Biteri kaleko lanak direla eta

Arrasateko Biteri kalean egiten ari diren aparkalekuetako lanek trafiko mozketak eragingo dituzte Garibai etorbidean. Lehenengo mozketak bihar izango dira. Goizeko 8etatik arratsaldeko 3ak arte iraungo dute Biteri kaleko lanek eta tarte horretan itxita egongo da Garibai.

Biteri kaleko lanak aste batzutan luzatuko dira eta eguenean, esaterako, berriz itxiko dute Garibai etorbidea goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara. Hurrengo asteko astelehenean, irailaren 19an, jarraituko dituzte lanak eta berriz ere itxiko dute trafikoarendako Garibai etorbidea.

Hitzorduak



KIROL IKASTAROETAN IZENA EMATEKO EPEA HASI BERRI DA BERGARAN | Gazteendako aerobika aurkeztu eta pilateseko eskaintza handitu dute

Gaur, astelehena, hasten da Bergarako Udalak antolatutako kirol ikastaroetan izena emateko epea. Gaurtik aurrera, aerobik, spinning eta sasoian egoteko gimnasiarako izena eman daiteke, eta hilaren 12an, yoga, pilates eta teniserako. Beti bezala, matrikulatzeko 18 euro sartu behar dira Kutxan

edo Euskadiko Kutxan, horretarako zabaldu dituzten kontuetan. Aurtengo berritasuna da aerogazte ikastaroa, gazteendako aerobik saio bat egubakoitzero, 17:00etan. Bestetik, pilates gimnasia eskaintza handiagoa egin dute aurten, iazko arrakasta ikusita.

ARAMAIO |

- **Su-gorriaren gainean berba egiteko batzarrak**
Su-gorriaren gainean azalpenak emateko bi batzar izango dira, Udalak deituta. Gaur eta bihar, astelehena eta martitzena, izango dira, udaletxean, 19:00etan. Herriko zuhaitz batzuek gaitz hori dute.

ARRASATE |

- **Bizkaira irteera egingo dute Abaroako egoitzakoek**
Abaroako erretiratuen egoitzak Mundakara eta Lekeitiora irteera egingo du irailaren 28an. Mundakan hamarretako egin eta Lekeitio bazkalduko dute. Izenemate epea gaur, astelehena, bukatzen da. Txartelak hilaren 26an banatuko dituzte.
- **Kanpoko igerilekuak zabalik daude oraindik**
Musakolako kanpoko igerilekuek zabalik dihardute. Hain zuzen, irailaren 18ra bitartean egongo dira zabalik.

BERGARA |

- **Ikasturte berria aurkeztuko dute Ipintza institutuan**
Ipintza institutuan ikasturte berriaren aurkezpena egingo dute etzi, eguaztena, honako orduetan: 11:00 (1. DBH eta 1. Batxilergoa), 11:15 (2. DBH), 11:30 (2. Batxilergoa eta 3. DBH) eta 11:45 (4. DBH).

San Martineko

- **danborradako entseguak**
San Martineko danborradako entseguak antolatu dituzte ume eta helduendako. Honako egun eta orduetan izango dira biendako: irailaren 8an, 9an, 10ean eta 11n, Seminarioko patioan; umeen entseguak 19:00etatik 20:00etara izango dira, eta helduenak, 20:00etatik 21:00etara.
- **Asteburuan lan egiteko begirale lan-poltsa**
Jardun elkarteak asteburuan lan egiteko begirale lan-poltsa osatu nahi du. Derrigorrezkoa da euskaraz ondo jakitea. Balaratu egingo da begirale titulua edukitzea, ikasketak eta esperientzia. Interesa baduzue, bidali curriculum honako helbidera: Bergarako Jardun elkarte; Errotalde jauregia, z/g; 20.570 Bergara; edo *gazte-jardun@topagunea.com* helbidera, irailaren 12a baino lehen.
- **Ehiza txapelketan parte hartzeko izenemate epea**
Ehiza txapelketa egingo du Ehiza Klubak hilaren 9an Castillo ehiza-barrutian. Izenematea etzi, eguaztena, bukatuko da Eusebio II eta Amilotxen.
- **1948an jaiotakoek kinto batzarra egingo dute**
Urriaren 1ean batzartuko dira Zabala jatetxean. Izena emateko, sartu 47 euro Euskadiko Kutxako euren kontuan. Herri autobus zerbitzua izango dute.

DEBAGOIENA |

- **Udal Euskaltegiaren izenematea zabalik dago**
Arrasaten (943 79 70 77 da telefonoa), irailaren 16ra bitartean dago zabalik; Bergaran (943 76 44 53), 15era bitartean; Oñatin (943 78 24 96), 20ra bitartean; eta Leintz Euskaltegian (943 79 21 68), irailaren 23ra bitartean.
- **Turandot lagun elkarteak afaria egingo du Donostian**
Hilaren 10ean, zapatua, egingo dute afari hori. Izena eman gura dutenek 696 91 35 66 telefono zenbakira deitu behar dute (Juan).

OÑATI |

- **Zubikoa kiroldegiko neguko ordutegia indarrean dago**
Ekainera bitartean, honako ordutegia du kiroldegia: astegunetan, 09:00-21:00; zapatutan, 09:00-14:00 eta 15:00-19:30; eta domeka eta jaiegunetan, 09:00-14:00.
- **Parisera eta Errioxara bidaiak Pake Lekurekin**
Parisera bidaiatuko du Pake Leku erretiratuen elkarteak. Irailaren 12tik 16ra bitartera izango da. Gutxi batzuek leku badago oraindik. Bestetik, irailaren 16an Errioxara joango dira, denboraldiko azken bidaia. Baterako zein besterako izenemate epea zabalik dago.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Duintasunaren arrastoak

Aretxabaretako Haritz Errastik bidali digu hurrengo gutuna. Frantziako espetxean gose greban dagoen bere anaiaren egoera salatuz:

“Bada munduan Herri bat, errepresioaren laino beltz eta sendo baten azpian, askatasun eta justizia egarriz. Badira munduan gizakiak errepresioaren laino beltz eta sendo baten azpian, askatasunaren eta justiziaren haizeak arnastu nahian.

Bada Nantesen gudari bat askatasunaren eta justiziaren haizeak arnastu nahian, errepresioaren eta injustiziaren laino beltz eta sendoaren ekaitzak harrapatuta: preso, bahiturik, isolamenduan eta etxetik 700 km-ra.

Bada gudari bat ekaitz madarikatu horretatik irten nahian, bere eskubideak aldarrikatu nahi dituen: beste kideekin batera egotea, etxetik gertu, status politikoaren jabe, eskubide guztiekin.

Bada gudari bat ekaitzaren erdian gose greba hasi behar izan zuena.

Bada gudari bat 22 egun gose greban, hezurretan, 20 kilo galduta, ohean egun guztian, bakarrik, erantzunik gabe, zain eta gose greban jarraitu beharrean. Noiz arte?

Jakin dezala munduak zer gertatzen den Frantziako espetxeetan gure Euskal Herri maitearen seme-alabekin. Zer egin beharrean dauden gure anai-arrebak beraiei dagozkien eskubideak berreskuratzeko. Zelan topatu dudana nire anaia bere atxiloketa gertatu eta hilabete eta bost egunera, ikusteko izan dugun lehenengo aukeran.

Gora zuek, eusko gudariak! Gora zu, Zuhaitz! Indarra eta kemen! Eta suertea ere bai”.

Sarean harrapatuta

Hegazkin konpainien zerrenda beltzak

Joan den udan hegazkin istripu asko izan dira eta ehunka hildako eragin dituzte. Hori dela-eta, herrialde batzuek, Frantziak eta Belgikak, adibidez, hegazkin konpainien zerrenda beltza osatu dute. Zerrenda

horretan dauden konpainiek ezingo dute, beraz, Frantzia eta Belgika zeharkatu. Oporretatik bueltan, pil-pilean dagoen gai honen gaineko eztabaida jarri dute *Goiena.net*-en. Hemen erantzun batzuk.

EZ NUKE ZERRENDAKO HEGAZKINA ERABILIKO

Ez dakit istripuak bat batean gutxituko diren edo ez, baina erantzun hau bidaltzen duen honek ez ditu hegazkin horiek erabiliko. Alajainkoa!

Txantxiliplisti / www.goiena.net

DIRUA DAGO HEMEN ERE JOKOAN

Konpainia handiek bultzatuko dituzte seguruenik zerrenda horiek. Uste dut segurtasuna baino dirua dagoela jokoan. Estutu egin dituzte prezioak eta bide batez konpainia handiak. Betikoa hemen ere, handiak txikia jan nahi.

Txikia / www.goiena.net

EZ DITUZTE SEGURTASUN NEURRIAK BETETZEN

Egia da jende askok erabiltzen dituela horrelako hegazkinak bidaiatzeko, baina nik neuk ez nituzke erabiliko. Ez dut uste segurtasun neurri denak betetzen dituztenik. Gainera, ekipaiaren pisua handia bada tasa handiak kobratzen dizkizute, eta ez hori bakarrik, aireportu garrantzitsuenetatik ez dira irteten. Horrek gastua ekartzen du. Izan ere, autobusean edo trenez joan behar duzu zure azken helmugara.

Neu / www.goiena.net

ISTRIPU GEHIEN DITUENA ZERRENDAN JARRI

Zerrenda beltz horretan ez daude konpainia txikiak edo *low-cost* direlakoak. Zerrenda horietan estatistikak ikusita segurtasun aldetik arazo gehien dituztenak daude.

Bi ur botila ditut, bata Mauritaniakoa eta bestea Frantziakoa, zein edango nuke? Frantziakoa. Ez da handi eta txiki kontua, segurtasun kontua da. Istripu gehien nork edukitzen ditu? Bada hori zerrendara.

Ez dakit istripu tasa gutxituko denik, baina jendeak informazio hori eskura izango du. Hori da helburua, herriak informazioa edukitzea. Informazio hori erabili edo ez erabili gure esku dago. Beste gauza bat izango litzateke gobernuek zerrenda horietan daudenei hegaldiak debekatzeko.

6a / www.goiena.net

DENEI ESKATU BEHAR ZAIE MAILA BERA?

Estatistikak? Ez dakit. Nago, estatistikak egiteko egin behar direla azterketak. Eta azterketarik ez dagoela dirudi. Hori diote hegazkinetako sindikatuek. Kontua ez da ongoa eta bai nolakoa.

Eta galdera: denei eskatu maila bera? Berdin Frantziakoei eta Mauritaniakoei?

Alejandro / www.goiena.net

GURE SEGURTASUNA DAGO JOKOAN


Espainiako estatuan ez dira kontrol onak egiten, baina estatuan ez dago zerrendarik! Frantzian badaude kontrolak eta han daukate zerrenda.

Maila bera eskatu? Bai noski. Merkatu berdinean lan egiten dute eta gure segurtasuna dago jokoan. Maila berdina denei, bai.

9a / www.goiena.net

www.goiena.net

Hegazkin konpainien zerrenda beltzek istripuak gutxiagotuko dituzte?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Zergatik sortzen du hainbeste ika-mika emakumeen parte-hartzeak Hondarribia eta Irungo alardeetan



IGOR OIARBIDE |
HONDARRIBIARRA

Alderdi historiko tradizional aldaezina defendatzen dutenek, ez dute ezer aldarazi nahi; beste sektore batek, tradizioari eutsi bai, baina gaur egunera egokitzea defendatzen du. Lehenengoek izate sentimendu oso sendoa dute eta ez dute bigarrenen malgutasun nahia ulertzen.



LOLA VALVERDE |
HISTORIALARIA

Beste herri eta jaietan arazoak konpondu egiten dira, baina herri horietan geroz eta okerrago dago egoera. Uste dut gertatu dena dela emakumeak parte hartzearekin batera beste zerbait ere aldatuko dela pentsatzen dutela, hau da, uste dutela horren atzetik esku beltzen bat dagoela.



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ |
MAIRUAREN ALARDEA ANTZUOLAN

Hangoa izan barik oso zaila da ulertzea. Dena dela, Antzuolako elkartearen erdian dugu horretaz, eta ez dut uste ezer distortsionatzen denik emakumeen parte-hartzearekin. Garrantzitsuen tradizioari jarraitzea da eta denboraren poderioz egin beharreko aldaketak onartzea.



JOSE LUIS KORTABARRÍA |
ALARDEKIDE OHIA ANTZUOLAN

Ez dago alderatzerik; Antzuolako alardean partaidetza txikia dago eta orain arte eskopetak eskuratzeko arazo izan da (ehiztarien elkarrekin arduratu izan da). Gurean ez litzateke arazo izango emakumeek parte-hartzea; hala ere, Irun eta Hondarribian herri kontsulta egin beharko litzatekeela uste dut.

Egunkarietako harribitxiak

HILTZEAN MEDIKUNTZA IKASLEEN ESKU

Honezkero mila bat euskaldunek eman diete beren gorpua medikuntzako ikasleei; urtean, batez beste, 16k –estatuko kopururik handiena da–. Mila horiekin hogei bat urterako gorpu nahikoa dute Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek. Hala eta guztiz ere, guztiak dira ongi etorriak.

'El Diario Vasco'
2005-09-04



Zorroztalea



Gazte-gaztetxe

Egubakoitzean inauguratuko dute gaztetxea. Casablancan dago, eta egubakoitzean zabaltze kontzertua egingo dute. Abuztuaren ibili dira asanbladako kideak Casablancako eskola zaharra gaztetxe bihurtzen. Bi pisu ditu: goikoa lehenetan laga dute; behekoan egin dituzte lan gehienak. Momentuz, agertokia eta komunak dituzte. Gazteen esanetan, lan asko egin dute, baina oraindik badago lana.

Oihana Elortza
'Goiena.net' | 2005-09-01

haro abandonatuta edukitako eraikinak batere arazorik sortu ez, eta bat-batean, gazte batzuk han jolasean, lanean, kantuan hasi direlako, eskandaluzko arazo bihurtzea?

Gaztetxe bat dagoen lekuan bada beti alkate bat. Oso sarri, alkate hori burusoila izaten da. Oso gutxitan, antiojoduna. Gaztetxe bat botatzean, bada beti makina bat, hondeatzeko makina, eta orube eztiitsu bat salgai.

Gaztetxea non ixten den, han eraikitzen da laster batean gazteleku bat; baina gazteak ez dira gazte berak izaten, edozein leku ez baita etxe. Gaztetxe bat eraisten denean, handik oso gutxira, handik oso gertu, beste pareta batzuk harrera alai egiteko kolorez janzten dira, temati.

Gaztetxea den lekuan dorrea nahi du alkateak. Kontuz, baina: tximistek dorreak izaten dituzte jomuga, ez alegantzia zuloak.

UDA GUZTIETAKO SUGARRA

Azken hamar urtetako suterik larrienak izaten ari dira aurten Iberiar Penintsulan. Portugalen, azken datuen arabera, 240.000 hektarea inguru erre dira urtarrilaren leetik abuztuaren 23ra bitartean. Orain arteko datuen arabera, suteek 300 milioi euroko kalteak eragin dituzte Portugalgo nekazaritzan. Suteen eta lehortearen batuketak emaitza kezagarriak utziko

dizkiete Portugalgo nekazariei. Poliziak 127 lagun atxilotu ditu suteekin lotura dutelakoan. Bestetik, Galizian, Herrialde Katalanetan, Hego Euskal Herrian eta Espainian ia 21.000 sute izan dira abuztuaren 21era arte. Espainiako Gobernuaren arabera, 130.000 hektarea erre dira. Sute gehienak nahita eragindakoak izan dira.

'Berria'
2005-09-04



Gerardo Markuleta

Gauza jakina da: gazte izatea ez da jada lehengo gauza bera. Orain nahikoa da eskuko telefonoa, mp3-a edota kamera digital bat opari hartzeko edatea izatea, merkatuarentzat automatikoki "gazte" mailara pasatzeko. Eta, beste muturrean, egun guztia eguneko zentroan emanda ere, pentsio txukun samar bat izatea nahikoa, gazte izateari –erosle, alegia– sekula ez uzteko.

Baina, goi eta behe aldeko zabaltze hori gorabehera, gazte-gaztearen betiko definizioak bere horretan dirau halere: diru gutxi, eta hori ez norberak irabazia; autorik oraindik ez, pisurik hain gutxi, sexu konpartitua ere nekez; eta halako mesfidantza orokor bat era guztietako ordutegi, agindu eta pertsona (adinez) helduen aurrean.

Nola azaldu gazte bati urteetan bai jabeak bai administrazioak ze-

"Nola azaldu gazte bati urteetan abandonatuta edukitako eraikinak batere arazorik sortu ez eta gero arazo bihurtzea?"

"Gaztetxe bat eraisten denean, handik oso gutxira, handik oso gertu, beste pareta batzuk harrera egiteko kolorez janzten dira"

Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2005-IX-4

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'

MEDEKUA

"Naturaren mendekua" deitu dio *The New York Times* egunkariak Katrinak eragindako hondamendiari. Bushek ordezkatzen duen neoliberalismoak diru azkar erraza jarri zuela Kiotoko itunaren ginetik. (...) Espresio horrek Bibliatik datorkigun "Jainkoaren zigorra" gogorarazten du. Hortik, "Zer egingo zaio ba!" esatera pauso bat dago.

Anjel Lertxundi
2005-09-04

'Gara'

AHULAGOAK

Arazoa da gizakiak galdu egin duela ingurumenarekiko zuen jakinduria. New Orleans eraiki zen itsasoaren mailaren azpitik; hori ez zuketan inondik inora egingo frantsesak iritsi aurretik han bizi ziren leinuek. Nahasmena areagotzeko, jakitera eman dute Bushek Irakera bideratu zuela Luisianako kostako dikeen mantenurako dirua.

Mertxe Aizpurua
2005-09-04

'El Mundo'

AGINTARI TXARRAK

"Ahal duen edonork ipurdia hegazkinean sartu eta laguntzera etortzea nahi dut" esan du New Orleanseko alkateak, AEBn mereziz zuen hiri bakarrenetako alkateak. Tsunamiak kaltetutakoek laguntza eskaini diete AEBei. Hori bai dela eredugarria. George Bush edozein urakan baino txarragoa da.

Antonio Gala
2005-09-04

'Deia'

BESTE HILDAKO BAT LANGRAITZEN

Sei dira, dagoeneko, abendutik hona Langraitzen hil diren presoak; bertsio ofizialaren arabera euren buruaz beste eginda. (...) Emakume preso batzuek funtzionario baten aurka egindako salaketak –sexu mesedeak tarteko– ezagun egin ziren. Heriotzok zein salaketok ikertzea komeni da espetxe horretan gertatzen dena behingoz argitzeko.

Editoriala
2005-09-04

KIROLA

- Beteranoen Munduko Atletismo txapelketan Ibarrekoak ederki ibili ziren | 20
- Joxe Mendiola mendizaleak lan bikaina egin zuen Andorran | 18



Koldo Erostarbe,
Eibarreko lehen
taldeko jokalaria
elgetarrari
elkarrizketa | 16

PREFERENTE MAILARI HASIERA

ALOÑA MENDI

6-4

ORIOKO

Aloña Mendi | Elgarresta, Lopez (Maiztegi, 84. min.), Igartua, Olalde, Barrera, Zubia, Astola, Garmendia (Sanchez, 69. min.), Camino (Moia, 70. min.), Arregi I. (Aramendi, 83. min.) eta Arregi II.a (Jagoba, 86. min.).

Orioko | Pajares, Txabola, Azkue, Aldapa, Telleria, Heras (Ibarbia, 60. min.), I. Argote, I. Argote, Esoain (Makazaga, 49. min.), Bellido (Fernandez, 54. min.) eta Torre.

Golak: 0-1 Torre. 1-1 Arregi II. 1-2 Torre. 2-2 Arregi II.ena. 3-2 Camino. 3-3 Argote. 4-3 Arregi II. ena. 5-3 Arregi I.goa. 6-3 Aramendi. 6-4 Telleria.

Epailea | Javier Roman jauna. Orokorrean ondo aritu zen, nahiz eta txartel horien bat ateratzea "ahaztu" zitzaion.

Bikain

Arregi II

Hasiera bikaina eman dio Iñigo Arregi aurrelariak denboraldiari. Berak sartu zituen bere taldearen golen erdiak eta garrantzia handikoak izan ziren.

Kaskar

Defentsa

Nahiz eta orokorrean lan ona egin taldeak, 6 gol sartu zituen, baina beste 4 jaso, eta horrek zerbait esan nahi du taldeko atzeko lerroari begira. Hobetu beharra dago hurrengo jardunaldietarako.

Esandakoak

"Psikologikoki gogorrak gabela erakutsi dugu, behin eta berriz aurka izan dugun markagailua altxatu dugu eta".

AITOR ORUETA |
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Partiduak hasiera zoroa izan du. Baina hiru puntu garrantzitsu lortu ditugu, nahiz eta lau gol jaso ditugun".

JULEN BARRENA |
ALOÑAKO KAPITAINA



AINZANE AGIRRE

Etxeko taldeak behin eta berriro eman behar izan zion buelta markagailuari, eta azkenean 6 sartu zituen.

FUTBOLA | ASTEBURU HONETAN HASI DA PREFERENTE MAILAKO LIGA

Gol festa eta lidertza Aloñaren lehen partiduan

Partiduak hasiera zoroa izan zuen eta lehen minuturako oriotarrak aurretik jarri ziren, baina Aloñak ederki erreakzionatu zuen

Jasone Zabala

Lehen jardunaldiari gol festaz eman zioten hasiera Azkoagainen Aloña Mendik eta Oriokok.

Lehen zatia nahiko arraro hasi zen, lehen minuturako epaileak etxekoan aurkako penalti bat adierazi zuen eta. Penaltia Torre aurrelariak sartu zuen. Bazirudien gauzek ez zutela bide onik hartuko, baina bosgarren minutuan Arregi II.ak berdinketaren gola sartu zuen. Oriotarrak hasieratik irten ziren presionatzen,

eta oñatiarrak lehen minutuetan zelaian lekua ezin topaturik zebiltzan. Horrela, kanpotarrek bigarren gola lortu zuten, hau ere Torre aurrelariak sartutakoa. Ordura arteko kanpotarren presioa pixka bat jaitsi egin zen, eta etxekoak erosoago ari ziren jokatzen. Honela, 22. minutuan berriz ere Arregi II.ak, binako berdinketaren gola lortu zuen. Oriotarrak atzean sartu ziren pixka bat eta Aloñak erasora jo zuen. Aukera oso argiak eduki zituen lehen zati honetan, batez ere

hegaletako erdiraketekin, eta honela, lehen zatia amaitzear zegoela etxeko taldeak hirugarren gola sartu zuen. Honako honetan Caminok sartu zuen.

BIGARRIN ZATI NAHASIA

Bigarren zatian, kanpotarrak argi eta garbi hiruak berdinketaren bila atera ziren eta behin eta berriz erasora jo zuten. 62. minutuan Argotek hirugarren gola sartu zuen. Berriz ere berdinketa eta urduritasuna sartu zen etxekoan gorputzetan. Hala eta guztiz ere, aurrera begira jarraitu zuen Aitor Oruetaren taldeak, eta 6 minutura berriz ere aurreratu egin ziren etxekoak penalti jaurtiketa baten ondoren. Berriz ere golegilea Arregi II.a izan zen. Azkoagainera hurbildutakoak ezin sinisturik zeu-

den hainbeste gol ikusita. Orduan, etxekoak atzean sartu beharrean partidua erabakiko zuen golaren bila joan ziren, eta baita lortu ere. 5 eta 3koa Arregi I.ak sartu zuen kontraeraso bikain batean. Oriotarrek beraien ezintasuna ordurako agerian utzi zuten, eta Aloñak gora begira jarraitu zuen. Honela etorri zen etxekoan 6. gola, Aramendik sartu zuen hau. 6 eta 3ko emaitzaz etxekoak erlaxatu egin ziren eta egoera hau aprobetxatu zuten oriotarrek markagailuan pixka bat hurbiltzeko, etxekoan defentsako hutsak aprobetxatuz. Beste bi gol sartu zituzten kanpotarrek, eta partidua horrela amaitu zen. Hamar gol lehen jardunaldian, zaleak pozik eta datorren astean Pasaiari egin behar bisita.

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK



ARGAZKI PRESS

Bigarren zatian itxura hobea eman zuten Igor Gordobilen mutilek eta etxeok ezin izan zuten eurekin.

Hobetu beharreko itxura eman arren, emaitza ona

HERNANI
1-3
MONDRA

Hernani | Franco, Molina, Mingo, Goya, Zabala, Bereziartua (Murillo 82. min.), Urretabizkaia, Bakero, Vila, Olasagasti eta Portillo.

Mondra | Oier, Markel (Alarcia 21. min.), Merkader, Ruben, Laspiur, Gotzon, Keixi, Loiti (Alzola 54. min.) (Muxi 66. min.), Ekain, Zubikarai (Julen Garmendia 67. min.) eta Lopez (Julen Heriz 59. min.).

Golak: 0-1 Laspiur. 1-1 Portillo. 1-2 Gotzon. 1-3 Julen Heriz.

Epailea: Igor Martinez. Ondo ibili zen. Taldeek ez zuten kezarik izan.

A.G.

Bikain hasi du aurtengo denboraldia Mondrak. Bikain emaitzari begiratu, itxura hobetu beharra daukate eta oraindik. Horrela esaten zigun gutxienez Igor Gordobil entrenatzaileak: "batez ere lehen minutuetan oso itxura txarra eman dugu, eta hobetu beharreko gauza batzuk badaude oraindik".

Normala den bezala, entrenatzaile berriaren pentsaerak barneratzeko denbora pixka bat beharko du Mondrak, baina bitartean emaitza onak lortzen jarraitzen badute, arazoak txikiagoak izango dira.

Ez da txarra denboraldia garaipenekin hastea, eta egin-

dako fitxaketa berriak gutxika talde barruan sartzea. Izan ere, egindako fitxaketek jokatu zituzten minutu batzuk zapatuan.

GAIZKI HASI, ONDO BUKATU

Hasierako hogeitun minutuetan Mondrakoak nahiko galduta ibili ziren. Lerro artean distantzia handiegia uzten zuten, eta hori ikusita Gordobilek aldaketa bat egitea pentsatu zuen. Handik aurrera, hobetoxeago ibili zen taldea. Markagailuan aurreratu ziren, eta etxeok berdindu bazuten ere, atsedendian jasotako azalpenekin, Mondrakoak nagusitu egin ziren zelaian. Horrek ekarri zuen azken minutuetan beste bi gol sartu ahal izana, eta garaipena lortzea.

Ondo jokatu arren, UDAk galdu egin zuen

MUTRIKU
2-1
UDA

Mutriku | Aitor, Iban, Aitzol, Tubal (Endika 70. min.), Asier, Joseba, Kepa (Gorka 71. min.), Haritz (Ander 55. min.), Mikel (Ander 86. min.), Mikel eta Jon Andoni (Oier 88. min.).

UDA | Jon, Raul, Oxel, Unai, Jon, Egoi (Imanol 71. min.), Endika (Iñaki 55. min.), Haritz, Igor, Erik (Jon 65. min.) eta Iban.

Golak: 1-0 Mikel. 1-1 Erik. 1-2 Aitzol.

Epailea: Ander Tornos jauna. Nahiko gaizki ibili zen.

Bikain

Erik
Zapatu arratsaldean talde guztia aritu zen ondo, baina Erik aipatuko dugu bereziki. Berak sartu zuen UDaren gola eta aukera onak izan zituen beste golen bat sartzeko ere. Beste batean izan beharko.

Kaskar

Epailea
Ez zen fin aritu Ander Tornos epaile jauna, San Migel futbol zelaian. Mutrikuren lehenengo gola ez zen legezkoa izan eta ez zen markagailura igo behar izan. UDA taldeko entrenatzailea kalera bota zuen.

Arantzazu Ezkibel

UDAk ezin izan du garaipen batekin hasi aurtengo denboraldia. Mutrikuren aurka 2 eta 1 galdu zuen zapatu arratsaldean. Hala ere, pozik daude egindako jokorekin. UDAko lehendakariaren esanetan, ekipoa oso ondo aritu zen San Migel futbol zelaian. Mutriku baino gehiago izan zen UDA partidua guztian zehar. Hala ere ezin izan zuten hiru puntuak etxera ekarri.

GOL ERABAKIGARRIA

Mutrikuren lehenengo gola erabakigarria izan zen. Aretxabale-tarrak ez daude batere ados epaileak hartutako erabakiarekin. Hauen ustez, gol hau ez zen markagailura igo behar.

Hala ere, UDAko jokalariek aurrera egin zuten aukera on asko sortuz. Lanaren ordaina bigarren zatian heldu zen. Erikek UDaren gola sartu zuen 60. minutuan eta partidua berdindu zuen.

UDA Mutriku baino joko hobea egiten ari zen. Taldeak aukera ugari sortu zituen. Bigarren gola sartzeko aukera ederra ere izan zuten, baina baloiak zutoina jo zuen. Azkenean aukera hauek ez ziren gauzatu, bai ordea mutrikuarrek izan zutena.

Bigarren zatiko 80. minutuan izan zen. Mutrikuarrek kontra batean izandako falta bat aprobetxatu zuten. Aitzolek baloia sareetan sartzeko lortu zuen, partidua bukatzeko hamar minutu falta zirela. Hortaz UDAk ezin izan zituen hiru puntuak etxera ekarri.

Datorren astean beste aukera bat izango dute.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK		SAILKAPENA							
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK	
Alaves-Bartzelona	0-0	1. Athletic	3	1	1	0	0	3	0
Valentzia-Betis	1-0	2. Celta	3	1	1	0	0	2	0
Athletic-Reala	3-0	3. Getafe	3	1	1	0	0	2	0
Sevilla-Racing	1-0	4. Real Madril	3	1	1	0	0	2	1
Mallorca-Deportivo	0-1	5. Osasuna	3	1	1	0	0	2	1
Osasuna-Vila-real	2-1	6. Valentzia	3	1	1	0	0	1	0
At. Madril-Zaragoza	0-0	7. Deportivo	3	1	1	0	0	1	0
Celta-Malaga	2-0	8. Sevilla	3	1	1	0	0	1	0
Espanyol-Getafe	0-2	9. At. Madril	1	1	0	0	1	0	0
Cadiz-Real Madril	1-2	10. Alaves	1	1	0	0	1	0	0
		11. Bartzelona	1	1	0	0	1	0	0
		12. Zaragoza	1	1	0	0	1	0	0
		13. Cadiz	0	1	0	1	0	1	2
		14. Vila-real	0	1	0	1	0	1	2
		15. Betis	0	1	0	1	0	0	1
		16. Racing	0	1	0	1	0	0	1
		17. Mallorca	0	1	0	1	0	0	1
		18. Malaga	0	1	0	1	0	0	2
		19. Espanyol	0	1	0	1	0	0	2
		20. Reala	0	1	0	1	0	0	3

Kiniela

KINIELA

1. Frantzia-Feroe Irlak	1
2. Portugal-Luxenburgo	1
3. Bosnia-Belgika	1
4. Suedia-Bulgaria	1
5. Polonia-Austria	1
6. Castellon-Numantzia	2
7. Ejido-Lleida	1
8. Ferrolgo Racing-Levante	2
9. Elx-Lorca	2
10. Murtzia-Eibar	1
11. Albacete-Valladolid	X
12. Malaga B-Murtzia Hiria	2
13. Castilla-Hercules	1
14. Almeria-Xerez	1
15. Eskozia-Italia	X

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK		SAILKAPENA							
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK	
Aloña Mendi-Orioko	6-4	1. Aloña Mendi	3	1	1	0	0	6	4
Idiazabal-Pasaia	2-2	2. Mondra	3	1	1	0	0	3	1
Beti Gazte-Touring	1-2	3. Ordizia	3	1	1	0	0	2	0
Mutriku-UDA	2-1	4. Zarautz	3	1	1	0	0	2	0
Ordizia-Zestoa	2-0	5. Real Union	3	1	1	0	0	2	0
Zarautz-Allerru	2-0	6. Touring	3	1	1	0	0	2	1
Hernani-Mondra	1-3	7. Mutriku	3	1	1	0	0	2	1
Trintxerpe-Berio	1-1	8. Idiazabal	1	1	0	0	1	2	2
Hondarribia-Irun 1902	1-1	9. Pasaia	1	1	0	0	1	2	2
Real Union-Anaitasuna	2-0	10. Trintxerpe	1	1	0	0	1	1	1
		11. Berio	1	1	0	0	1	1	1
		12. Hondarribia	1	1	0	0	1	1	1
		13. Irun 1902	1	1	0	0	1	1	1
		14. Aretxabaleta	0	1	0	1	0	1	2
		15. Beti Gazte	0	1	0	1	0	1	2
		16. Anaitasuna	0	1	0	1	0	0	2
		17. Allerru	0	1	0	1	0	0	2
		18. Zestoa	0	1	0	1	0	0	2
		19. Hernani	0	1	0	1	0	1	3
		20. Orioko	0	1	0	1	0	4	6

Futbola

• KILOMETROAK 05 EKITALDIEN BARRUAN ANTOLATUTAKO PARTIDUA

Realak eta Eibarrek lehen mailako partidua jokatu dute Kilometroen alde Atxabalpen

Eguaztenean jokatu dute Atxabalpen 18:00etatik aurrera eta sarrerak 10 euro balio du

Jokin Etxebarria

Kilometroak '05 Leintz bailaran ospatzeko hilabete bakarrik falta dela eta, aste honetarako hainbat kirol ekitaldi antolatu dituzte gurean. Asteburuan Euskadiko Errugbi taldea izan dugu eta eguaztenean, Gipuzkoako bi futbol talde garrantzitsuenak izango ditugu Atxabalpen lagunartekoa jokatzen: batetik Realak, eta bestetik Eibar.

Biek ala biek denboraldia hasi berria dute, eta biek galtzaile moduan hasi dute. Beraz, gaizki egindako gauzak hobetzen joateko parada polita izango dute eguaztenean 18:00etatik aurrera.

Espaniako selekzioak jokatzen duela-eta, lehen mailak atsendaldia izan du asteburuan, eta bi taldeei ongi etorriko zaie lagunarteko hau euren jokalariek hurrengo jardunaldietarako prest jartzeko.



Bi taldeen artean bost debagoiendar egongo dira. Horien artean bat Barkero.

Realarendako errebantxa polita izan daiteke. Izan ere, denboraldiaurrean ere elkar ikusi zuten bi taldeek Zarautzen, eta orduan eibartarrak izan ziren partiduko garaile.

Arrasaten jokatu den partidurako dagoeneko sarrerak sal-

gai daude ondorengo tabernetan: Zarauztarra (Eskoriatza), Gurea (Aretxabaleta), Monte eta Ziorla (Arrasate), Aloña Mendi (Oñatin) eta Deportivo (Bergara). Hala ere, Atxabalpen bertan ere sarrerak erosi ahal izango dira norgehiagoka hasi baino lehenago.

Prezioak hauexek dira: nagusiek 10 euro eta 16 urtetik beherakoek 5 euro.

Gainera, bertaratutakoek, lehen mailako partidua ikustez gain, euren taldeetan egondako azken fitxaketak ikusteko aukera ere izango dute.

FITXAKETAK ETA DEBAGOIENDARRAK

Egun batzuk pasatu dira taldeei fitxaketak egiteko aukera agortu zitzaientetik. Azken momentura arte ibili zen Realak Manchego eta Quirino fitxatu nahian, baina ez bata eta ez bestea ez dira izango Realarekin. Hori bai, Alvaro Novo ikusteko aukera izango dute Arrasatera gerturatzen direnek. Realarekin jokatu dituen lehen minutuak izango dira, eta taldean nola moldatzen den ikusi ahal izango dute bertaratzen diren zaleek.

Fitxaketei dagokienez, Eibar ere fin ibili da. Urtero bezala jokalaria berri pila bat ekarri behar izan ditu denboraldiari aurre egiteko. Azkenak, epea agortu baino une gutxi batzuk lehenago egin zituen: Jorge Azkoitia eta Julen Gonzalo, hain justu ere. Horiek ere euren lehen minutuak jokatu dituzte talde berriarekin Atxabalpen.

Baina horrenbeste fitxaketa-arten, ezin ahaztu jokalaria debagoiendarrak ere egongo direla Kilometroak 05 jaiaren alde jokatu den partidu honetan. Bi taldeen artean Debagoieneko bost jokalaria ditugu guztira: Aitor Lopez Rekarte, Jose Javier Barkero eta Mikel Gonzalez Realean, eta Imanol Etxebarria eta Koldo Erostarbe Eibarren, hain justu ere.

Plater tiroketa

Andres Ugarte izan da garaile III. Kurtzetagain plater-tiro txapelketan

Arantzazu Ezkibel

62 parte-hartzaile izan ziren Kurtzetagain tiro elkarteak antolatzen duen III. plater-tiro txapelketan, zapatuan.

Andres Ugarte aramaioarrak irabazi zuen lehen saria, 15 plater joaz. Lehen txanda jokatu ostean, sei parte-hartzaile berdinduta geratu ziren. Bigarren txanda bat jokatu zuten sei hauek berdinketa apurtzeko asmoz. Garailea bigarren txanda horretatik ateratu zen. Baita bigarren eta hirugarren postua lortu zuten Jose Luis Arregi eta Migel Bergara ere.

Irabazleak 50 euro eta urdaiazpiko eder bat irabazi zituen. Bigarren sailkatuak 40 euro eta urdaiazpikoa. Hala ere,

ez ziren urdaiazpikoa etxera eraman zuten bakarrak izan. Lehenengo 15 sailkatuek urdaiazpiko bana irabazi zuten eta.

Lehen aramaioarra, Jokin Agirre, laugarren postuan sailkatu zen. Urdaiazpikoa irabazi zuten beste aramaioarrak Mikel, Jose Ignazio, Angel eta Martin izan ziren.

ANTOLATZAILEAK POZIK

Antolatzaileak pozik agertu dira txapelketak izan duen erantzunarekin. Eguraldi bikaina egin zuen zapatuan eta hori dela eta jende ugari batu zen Kurtzetagain tiro elkarteak inguratu ziren guztiak eskertu nahi ditu eta bide batez datorren astean Leintz Gatzagan Kilometroen

alde jokatu den txapelketarako gonbidapena egin nahi izan du.

Domekan izango da txapelketa. Izenematea goizeko 10:30ean hasiko da eta arratsaldeko 16:30ak arte egongo da zabalik. 25 euro ordaindu beharko du parte-hartzaile bakoitzak. Emakumeek eta gazteek 5 euro.

Plater-tiroa gustuko dutenak beraz, datorren domekan dute hitzordua Leintz Gatzagako plater-tiro zelaian.

Emaitzak

LEHENENGOAK	PUNTUAK
1. Andres Ugarte (Amurrio)	15
2. Jose Luis Arregi (Antzuola)	15
3. Migel Bergara (Galdakao)	15

LEHENENGO DEBAGOIENDARRAK	PUNTUAK
1. Jose Luis Arregi (Antzuola)	15
2. Jokin Agirre (Aramaio)	15
3. Jose I. Ullibarriaran (Aramaio)	15



Partehartze handia izan zen zapatuan plater tiro txapelketan.

AINZANE AGIRRE

HIRUKO TXAPELKETA | ATXABALPEN JOKATU ZUTEN HIRU TALDEEK: EUSKAL SELEKZIOAK, ORDIZIAK ETA HERNANIK

Euskadiko selekzioak irabazi zuen hiruko txapelketa

Azken momentuan Limousin talde frantsesa ez zen Euskal selekzioaren aurkako partidua jokatzera azaldu. Hori dela eta, hiru partidur txikitik banatu zuten txapelketa

Jasone Zabala

Kilometroak 05 jaiari beste laguntza bat eman nahian zapatuan jokatu zen Atxabalpeko zelaietan, Arrasateko Errugbi taldeak antolatuta, hiruko txapelketa. Hasi-eran, Frantziako Limousin kon-derriko selekzioa zen etortzekoa, aspalditik hitza emana zuen eta, baina azken momentuan ez zen agertu. Ondorioz, hainbat aldaketa egin behar izan zituzten. Hala, Euskadiko selekzioak, Hernanik eta Ohorezko Ligara igo berria den Ordiziak hiruko txapelketa jokatu zuten. Partiduak hasi aurretik, talde bakoitzak oroigarria jaso zuen Kilometroak 05 antolatzen dihardutenen eskutik.

PARTIDU LEHIATUAK

Hiru partidur jokatu zituzten, eta partidur bakoitzak 40 minutuko zati bana izan zuen. Lehen partiduan, Ordizia eta Hernaniko tal-

deak aritu ziren. Esan behar da, nahiz eta lagun arteko partidurak izan bi taldeek ligako partidur izango balitz bezala jokatu zutela, intentsitate handiz. Ordiziak bere maila erakutsi zuen, eta 27 eta 0 irabazi zuen lehen partidur hori. Bi taldeok laster hasiko

300-400 ikusle inguru hurbildu ziren zapatuan Atxabalpeko zelaira

Bi ordu eta erdiz maila handiko errugbi partiduez gozatzeko aukera izan zuten ikusleek



AINZANE AGIRRE

Hiru taldeetako jokalariek kementa eta gogo handia erakutsi zuten partiduetan.

dute liga eta horregatik jokalariek ederki borrokatu zuten taldean postu bat lortzearren. Bigarren partiduan, Euskal Sele- kzioaren eta Ordiziaren arteko lehia izan zen; Euskadik irabazi zuen 7 eta 5eko emaitzaz.

Azkeneko partidur Hernanik eta Euskadik jokatu zuten, eta selek- zioak garaipen argia lortu zuen 5 eta 32ko emaitzaz. Beraz, bi partidur irabazita, Euskal selek- zioarentzat izan zen hiruko txa- pelketako garaipena.

Asteburuan izandako partidur hauek, entrenamendu gisa balio izan diote Euskadiko Sele- kzioari; Europan jokatu den Lurralde Autonomikoen Txapelketa prestatzeko entrenamendu, hain zuzen.

• ZER IRUDITZEN ZAIZU HALAKO TXAPELKETAK ANTOLATZEA?



AITOR, MIKEL, JAVI ETA JAIRO | ARETXABALETA

“Ondo iruditzen zaigu horrelako kirol ekintzak antolatzea, beti ere zerbaiti laguntzeko bada, Kilometroak jai kasu honetan. Guri futbola gustatzen zaigu gehiago, baina errugbia ere polita da ikus- teko, eta horrela jendea animatu egiten da hain ezaguna ez den kirola ezagutzera”.



RAUL | ARETXABALETA

“Kilometroetarako laguntza moduan ekimen polita iruditzen zait. Lagun batek jokatzeko du errugbian eta bera ikustear- ren etorri naiz, baita Kilometroak jai- rako dirulaguntza ematearren ere”.



UNAI, JON, IRAITZ ETA HODEI | HERNANI

“Ondo iruditzen zaigu horrelako ekintzak antolatzea, eta gure ustez gehiago egin beharko lirake. Modu honetan zaletu gutxiago duten kirolari bultzatzea emateko ederki daude, ez beti futbola, sas- kibaloia... bultzatuz; modu horretan, kilometroak jairako diru- batzea posible bada oraindik eta hobe”.




UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHE


Argazki guztiak fotoblog honetan:



BELARRETAN. Bero handia egin zuen uztaileko egun hartan, baina soroko lanak ez du barkatzen. Hiru belaunaldik jardun zuten elkarrekin lanean Marinen. /Argazkia: Maite Beitia / Eskoriatza



INDIA. Rajastan eskualdeko Jaisalmer herri gotortuan aterata dago; Pakistango mugatik oso gertu. Ilunabarrean hiri inguruei begira zeudela Jaisalmerreko neskatxa azaldu zen. /Argazkia: Igor Basauri / Bergara



ZALDIAK TROSTAN. Pol Pol Mendizale taldeko irteeran egindako argazkia da; Lezotik Hondarribiarako ibilaldia. Bidean zaldiak ikusi zituzten. Lasai-lasai zeuden, eta trostan ibil zitezten lagun baten beharra izan zuen argazkilariak. / Argazkia: Benito Cantero / Bergara


Baldintzak:

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Epea zabalik dago 2005eko irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
 - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
 - Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
 - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
 - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 26ko *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 3ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Argazkiak *Asteleheneko Goienkaria*-ren artxiboan geratuko dira, etorkizunean erabili nahi badira ere, betiere egilea aipatuta.

NEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak




AMSTERDAM GAUEZ. Holandako hiriburua gauez bidali digu Beñatek. Hiriko elizetako bat ageri da bertan eta baita horren ohikoak diren bizikletak ere. /Argazkia: Beñat Arraiz / Aretxabaleta



LAGUNAK EGIPTON. Arantzazu Zelaia, Iratxe Corrales, Miren Urkia eta Itziar Larrea dira. Turista itxura handiagoa izatea zaila da. Bat (ez dugu esango nor) han uztekotan izan ziren beste hirurak gameluen truke. / Argazkia: Itziar Larrea / Oñati



BEHI PINPIRINA. Eskoziako behia da. Whiski distilategi baten alboko zelaian zegoela diosku argazkilaria. Ile oso luzea du, aurpegia ia estaltzeraino. Whiskiak izango du zerikusirik? Begiak estali nahi ote zituen? / Argazkia: Imanol Soriano / Arrasate



TURKIAKO URETAN. Keoba inguruan, itsasoan barrena zebiltzala atera zuten argazkia. Itsasontzik salto egin eta bainua hartu ondoren zer hobe eguzkitan etzatea baino? / Argazkia: Juan Jose Lopez / Bergara

Sariak

1. saria: Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Zuiko digital 14-45 mm objektiboa. / Objektibo aldagarriak. / Flash eta guzti. / 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.



- 2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- SARI BEREZIA:** parte-hartzaile guztien artean sari sorpresa.

Babeslea:



gizarte ekintza

Laguntzaileak:

GURE AMETSA
JATETXEA



EROSKI bidaiak
merzi duzu

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

Markel Irizar txirrindularia bere lehenengo itzuli handian parte hartzen dabil Euskaltel Euskadi taldearekin. Bere egoeraz gainera, taldearen egoera ere

aztertu digu berarekin. Esan digunez gustura sentitu da itzulian. Hala ere, datorren urteari begira hobetu beharra daukala ere esan digu oñatiarrak.

MARKEL IRIZAR | TXIRRINDULARIA

“Nire lehenengo itzuli handia da eta lan ona egiten ari naizela uste dut”

Arantzazu Ezkibel

Zer moduz ikusi duzu zure burua lehenengo itzuli handian?

Oso gustura nago egin dudan lanarekin. Lehenengo egunetan aurrean ibili naiz, Aitorrekin. Bi ihesalditan sartzea ere lortu dut. Mendian, berriz, indarrak gordetzen aritu naiz. Datozen egunetan izango ditugun etapak gogorak izango dira eta indarra gorde beharra daukat.

Asko sufrituko dudala uste dut mendiko etapa horietan. Indarrez justu samar nabil eta hori igarri egingo dut.

Ze esperantzarekin joan zara Espainiako itzulira?

Hasiera baten gure asmoa aurrean ibiltzea zen. Aitor Gonzalez itzulia irabazteko moduan egongo zela uste genuen. Hortaz, gure helburua aurrean egon eta denbora ahalik eta gutxien galtezen. Bigarren asterako Aitorrek lidergoa lortu ezkerro, berau defendatzea zen helburua.

Baina gauzak ez dira uste bezala atera. Aitor ez da ondo sentitu eta ez du lortu lehenengo postuetan ibiltzea.

Horren aurrean helburuak aldatu beharko ditugu orain. Gorputzak zela erantzuten duen ikusi eta ea ihesaldiren bat hartzea lortzen dugun.

Zer moduz pasatu duzu aste bukatuak? Erlojupekoa ondo joan dela esango zenuke?

Gustura geratu naiz erlojupekoan egin dudan lanarekin. Nire asmoa lasai ibiltzea zen. Esperientzia hartu eta ikastera atera naiz. Gainera indarrak gorde behar ditut, datozen egunetako etapak oso gogorak izango dira eta.

Azkenean denbora ona egin dut. Sei minututara sartzea lortu dut eta oso gustura geratu naiz egindako lanarekin.

Taldea zer moduz ibili da? Nola dago animu aldetik?

Ekipoa animoso dago, nahiz eta gauzak ez diren atera guk uste genuen bezala. Egia esateko, itzulia eta urtea orokorrean nahiko txarrak izan dira guretzat.

Datorren urtera begira lanean hasi beharko dugula uste dut. Gaizki eginak ikasi eta ahal diren neurrian hobetu behar ditugu. **Iban Mayok itzulia utzi behar izan du. Zer moduz dago?**

Iban hasiera batetik gaizki etorri zen. Ez zegoen kondizio onetan. Tourretik errekuperatu barik etorri zen.



Markel Irizar bere lehenengo itzuli handia jokatzeko ari da.

“Itzulira indar aldetik eskas etorri naiz. Hala ere, lan txukuna egiten ari naizela uste dut; gustura nago egindakoarekin”

“Datorren urterako gauzak hobetu behar ditut. Espero nuen jauzia ez dut nabaritu”

“Iban Mayok arazo fisikoak izan ditu eta hori dela eta laga behar izan du. On baino kalte egiten ari zen”

Hasiera baten gainera ez zen etorri behar, baina, presioak direla medio, azkenean itzulian parte hartu behar izan du.

Bai berarentzat eta baita taldearentzat ere erabaki onena izan da. Lesioa osatu eta datorren urteari begira hastea izango du onena. Azken finean, on baino kalte egiten ari zen.

Itzulia bukatzen denean amaitu da zure denboraldia. Zer asmo duzu?

Egia esan bukatzeko gogoz nago eta lehenabilehen datorren urteari begira hasteko zain. Behingoz atsedena hartzeko gogoia ere badaukadala aitortu behar dut.

Taldearentzat eta baita pertsonalki ere urte txarra izan dela uste dut. Gauzak ez zaizkigu uste genuen bezala atera. Jauzi handiagoa ematea espero nuen. Hobe-kuntza handiagoa nabariko nuela uste nuen, baina ez da horrela izan.

Hortaz, izan ditudan akatsak aztertu eta datorren urteari begira hobetu beharko ditut. Neguan gogor lan egin beharko dut. Hala ere, ilusio handia daukat.

Mendi lasterketa



Lan bikaina egin zuen Mendiolak Andorrako proba gogorrean.

Joxe Mendiolak 14. egin zuen Andorrako proban

A.G.

Atzo jokatu zen Andorran Buff Salomon mendi lasterketa. Mendiola oñatiarra, Euskal selekzioko beste hiru korrikalarirekin batera, Debagoieneko ordezkari bakarra izan zen eta lan bikaina egin zuen mendi lasterketa gogor horretan. 14. izan zen helmugan eta Joxek esan digunez, pozik dago lortutako emaitzarekin.

Lasterketa goizeko bederatzietan hasi zen. 26 kilometroko lasterketa izan zen eta 4 ordu

inguru behar izan zituen Mendiolak proba amaitzeko. Tartean, Coma Pedrosa mendate gogorra igo behar izan zuten korrikalariek. Irteeran egon ziren korrikalari askok bertan behera laga zuten lasterketa probaren gogortasunagatik, izugarriko aldapak ditu eta Andorrako lasterketak.

Urriaren Espainiako Koparen azkeneko proba izango da eta Mendiolak lehenengo hamarren artean sailkatzea espero du. Lehenago, bi aste barru, Italiako maratoina doa.

Labur

Gatzagako 27. Txirrindulari Lasterketa egubakoitzean

Datorren egubakoitzean, hilak 9, egingo dute Gatzagako 27. Txirrindulari Lasterketa, goizeko 9:30etan hasita. Ama Birjinaren eguna dela aprobetxatuta, asteburu horretan izango diren gaintzeko ziklismo probek –Elorrioren eta Goierrri aldean egingo dituzten lasterketak– eraginik ez izateko aldatu dute lasterketa egunez, domekatik egubakoitzera. Joan zen urtean moduan, elite eta 23 urtez azpiko 80 txirrindulari inguruk parte hartuko dute, eta iazko ibilbide bera egin beharko dute. Horrek esan gura du birritan igo beharko dutela Gatzagara.

Roberto Laiseka eta Mikel Artetxe Monte tabernako porran

Dagoeneko ohikoa da ziklismo itzuli handietan Peña Xantini antolatuta Arrasateko Monte tabernan porra bat egitea. Aurten goan gainera errekorrak hausten dabilta. Izan ere, Tourreko porran 877 pertsonen parte hartu zuten bertan, eta Vueltarako ere errekorra hautsi dute 500 parte hartzailearekin, iaz baino sei gehiago. 500 hauen artean, gainera, badira pertsona ezagunak, Roberto Laiseka eta Mikel Artetxe kasu. Biak ere txirrindulari profesionalak, eta Laiseka, gainera, Vueltan parte hartzen dabilena. Noski, bere burua ere sartu du aukeratu behar zituen 15 txirrindularien artean.

Sariei dagokionez, lehengoak 10 sailkatuek diru dezente eramango dute. Lehenak, 6.000 euro, bigarrenak 3.750, hirugarrenak 1.875 eta laugarrenetik hamargarrenera 375 euro.

ESKORIATZA HIRIA II. TXAPELKETA | BRUESA GIPUZKOA BASKETEK IRABAZTEKO SUFRITU EGIN ZUEN

Azken laurdenean irabazi zuen Eskoriatzan Gipuzkoa Basket-ek

Porfirio Fisac-en taldeak ez zuen itxura onegia eman, baina denboraldiaurrea denez nahiko normala da horrela jokatzera

BRUESA GIPUZKOA BASKET
77-73
HORMIGONES SALDAÑA

Jokin Etxebarria

Eskoriatza Hiriko II. txapelketa jokatu zen egubakoitzean Intxaurtxueta kiroldegian. Txapelketa honetarako talde nahiko handia ekarri zuten aurten. Gipuzkoan, mutilen saskibaloian dagoen talderik garrantzitsuena ekarri zuten: Bruesa Gipuzkoa Basket. Donostiarrak LEB 1ean egingo duten lehen denboraldia prestatzen dabiltza, eta Eskoriatzara Palentziako Hormigones Saldaña taldearen aurka jokatzera etorri ziren, denboraldiaurreko partidua jokatzera.

Ez zuten itxura onegia eman Porfirio Fisac-en mutilek. Hala ere, normala ere bada, denboraldiaurrea hasi berri dute eta. Gainera, bi baja garrantzitsure-



JOKIN ETXEBARRIA

Palentziarrek erasoan ondo mugitu zuten baloia, baina azken laurdenean, donostiarrak defentsa ona egin zuten.

Maila bat beherago egon arren, ez zen diferentzia gehiegi igarri bien artean

kin etorri ziren: bi joko antolatzailak. Horrek min handia egin zion Migel Santos lehendakari duen taldeari. Eta kontrarioak ere zail jarri zizkion gauzak. Mai-

Atsedenditik aurrera Bruesakoak jaun eta jabe izan ziren

la bat beherago egon arren, ez zen diferentzia handiegia igarri donostiarraren eta palentziararren artean eta Bruesakoek hirugarren laurdenera arte ez zuten

lasai egoteko moduko abantailarik lortu.

HIRUGARREN LAURDENA

Ordura arte palentziarrek hobeto jokatu zuten. Baloia ongi mugitu eta defentsako lan ona egin zuten, baina donostiarrak euren nagusitasun apurra erabiliz markagailua parekatua mantentzen zuten.

Atsedenditik aurrera Bruesakoak jaun eta jabe izan ziren. Momentu guztietan, zuten abantaila mantentzen jakin zuten,

nahiz eta palentziarrak behin baino gehiagotan markagailuan asko hurbildu. Baina hau gertatzen zen bakoitzean, Esteban Martinezek –gerora jokalaria onenaren saria eman ziotenak– taldearen burua hartzen zuten, eta berriz ere lasai egoteko moduko abantailak lortzen zituzten gipuzkoarrek.

Azkenean, emozio pixka bat ere egon zen, eta bertaratutakoek gustura bukatu zuten ikusitakoarekin.

PORFIRIO FISAC | BRUESA GIPUZKOA BASKETEKO ENTRENATZAILEA

“Aurten maila mantentzea derrigorrezkotzat jotzen dut”

Zer moduz ikusi duzu partidua?

Denboraldiaurreko partidu normal bat izan da. Beti atera behar dira gauza positiboak partidu hauetatik. Pozik nago taldeak egindako lanarekin. Kontrarioa oso gogorra izan da. Oso motibaturik zegoen, eta gainera gu baino bi aste lehenago hasi dira entrenamenduekin eta hori igarri egiten da. Guri bi joko antolatzailak min hartuta izateak min handia egin digu, baina oro har, pozik nago egindako lanarekin.

Zeintzuk dira zuen helburuak denboraldi honetarako?

Argi eduki behar duguna da joan den urtean sortutako talde bat garelako eta aurten ere jokalaria berri asko ekarri ditugula. Etorkizuneko proiektu honetan sinisten duten jokalaria nahi ditugu gurekin, eta gero, noski, aurten maila mantentzea derrigorrezkotzat jotzen dut.

Baina, talde polita egin duzue; esperientziadun jokalariekin.



JOKIN ETXEBARRIA

Bai, egia da, esperientziadun bi jokalaria ekarri ditugu: Galilea eta Esmoris. Baina bestela, taldea oso gaztea da, jokalaria gehienek 21-22 urte dituzte. Hala ere, talde polita egin dugula uste dut.

JOSE LUIS GALILEA | BRUESA GIPUZKOA BASKETEKO JOKALARIA

“Ilusio handia egin dit berriz etxera bueltatu izanak”

Zer moduz ikusi duzu partidua?

Huts asko egin ditugu, baina normala da, hasi berriak gara eta. Partidua, denboraldiaurreko partidu tipiko bat izan da. Gutxika-gutxika hobetzen joateko espero dut, eta denboraldian zehar gaur baino hobeto ibiliko garela ziur naiz.

Urteak kanpoan eman eta gero, berriz bueltatu zara Donostiara. Zer moduzkoa izan da buelta?

Oso ona. Ilusio handia egin dit etxera bueltatu izanak, eta gainera horrelako proiektu handi batean parte hartzeko eskatu izanak asko poztu nau. Gaur ezin izan dut jokatu lesio txiki bat izan dudalako giharretan, baina gogo biziz nator, eta neure onena emateko ahaleginak egingo ditut.

Zein helburu jarriko zenizkioke taldeari?

Kontuan hartu behar da oso talde gaztea dela, eta horrek dituen abantaila eta desabantaila guztiak ditugula. Hala ere, talde polita daukagula uste dut, eta lehen



JOKIN ETXEBARRIA

helburua maila mantentzea bada ere, ahalik eta goren bukatzen saiatu behar dugu. Anbizio handiko proiektu bat da gurea, eta helburu handiak jarri behar genizkioke gure buruari.

ATLETISMO TXAPELKETA DONOSTIAN | PARTE-HARTZAILEEN MAILA HANDIA IZAN BAZEN ERE, IBARREKOAK EDERKI ARITU ZIREN

Debagoieneko beteranoek maila ona erakutsi zuten mundialean

Lau atletek maila bikaina erakutsi zuten egin zituzten proba guztietan, eta finaletan ere lan txukuna egin zuten denek

Jasone Zabala

Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketan fin aritu dira Debagoieneko lau ordezkariak, eta beraien lanak amaituta dagoeneko etxean dira.

Mari Fran Alonsok, bi probetan parte hartu zuen: 8.000 metroko krosean 13. bukatu zuen, eta 1.500 metroko sailkapen probetan 5. gelditu zen, baina ez zen finalerako sailkatu, 7 segundora gelditu zen eta. Hala eta guztiz ere, Mari Franek ondorio positiboak atera ditu Donostiako Mundialean bizi izan duen gutitik: "Egunero entrenatzen dut, nire zaletasuna da, eta horrelako ekitaldiek entrenamenduetan egindako guztia proban jartzeko balio dute. Beti nahi izaten da zerbait gehiago lortzea, baina egon den maila ikusita pozik nago egindako lanarekin, kontuan hartuta pistan korrika egin ez dudala esperientziarik".

Mari Franek atsedenerako denbora gutxi hartuko du, datorren domekan Mendatan egingo den maratolian parte hartuko du eta. Maria Jose Gilek berriz, 5.000



BELEN CARRASCAL

Zapatuko maratoiarekin esan zion agur Diezek 20 urteko zaletasunari.

metroan 11. postua lortu zuen eta 1.500 metroko finalean 8. postua eskuratu zuen berak ezarrita zeukan aurreko errekorra hobetuz. Maria Josek esan digu, 5.000 metroko proban bero handia egin zuela eta bere erritmoa ezarritik proba ederki amaitu zuela. Bere gozamenerako egiten du korrika Maria Josek, eta askotan gogorra egiten zaio aurrera jarraitzea atletismo mundu honetan,

beraiek ordaindu behar baituzte gastu guztiak. Hala eta guztiz ere, pozik dago egindako lanarekin.

Maria Jesus Velascok berriz, 5.000 metroan 27. postua lortu zuen eta 1.500 metroan, 14. postua eskuratu zuen. Maria Jesus 4 urte daramatza atletismo munduan eta orain arte ez dauka marka pertsonalik; beraz, lortutako postuarekin pozik azaldu

da. Mundiala eta gero Behobia-Donostiarako prestatuko da.

MARATOIARI AGUR

Cesar Diezek, berriz, Maratoian (42,195 km) parte hartu zuen, eta proba guztian egin zuen beroa kontuan hartuta, amaitzea ez zen gutxi izan; 71. postua lortu zuen. Donostiakoa izan zen beretzat azken maratokia, 23 urtean korrika aritu ondoren.

Cesar Diez: 23 urte eta gero agur maratoiarari

Bizitzaren zati handia kilometroak egiten aritu ondoren, Donostiako mundiala amaitzeaz batera agur esango dio Cesar Diezek atletismo munduari, zehatzago maratoiarari. 23 urtean maratoiak korritzen aritu ondoren, lasterketa luzeak alde batera utziko ditu eta noizbehinka lasterketa motzetan parte hartzen jarraituko du. Cesar 33 urterekin hasi zen atletismo munduan eta 23 urte egin ditu korrika. Urte hauetatik guztietatik Cesarrek bereziki gogoratzen duena 1997. urteko New Yorkeko maratokia da. Cesarri atletismoak dena eman dio bizitza honetan, eta urte guzti hauetan bere prestakuntzan aritu diren Santi Perez eta Txufi ere gogoan ditu Cesarrek, ederki zaindu dutelako.

Donostian hasi zen maratobietan parte hartzen, eta halaxe amaitu nahi izan du 23 urte pasa eta gero, **Enrike Kabiketa lagun handiari omenaldi antzeko bat eginez.**

• NOLA IKUSTEN DUZUE ZUEK BETERANOENTZAT MUNDIALAK ANTOLATZEA?




MARI FRAN ALONSO |
ARRASATE

"Adin batetik aurrerako jendearentzat oso garrantzitsua da. Nora joan daukazulako, balio duzula ikusten duzue eta gainera beste jende mordo batekin harremana duzue. Donostian ikusitako giroaren ondoren norberak ikusten du inoiz ez dela berandu, kasu honetan atletismorako".



MARIA JOSE GIL |
ARRASATE

"Ondo ikusten dut beteranoentzako mundiala antolatzea. Lagun asko egiten dituzu, eta antolakuntza ere bikaina izan da. Horrelako ikuskizunak antolatzea oso garrantzitsua da, jendeak ikus dezan atletismorako ez dagoela adinik, eta adin batetik aurrera sasoiko gaudela oraindik".



CESAR DIEZ |
ARRASATE

"Ondo ikusten dut. Gainera, gauza handia da elitean ez dagoen jendearekin ere aurrera hauek ematea, norberak bere burua gainditu nahi duenean ez dagoelako adinik, eta nire ustez kirola egiteari ez zaio adinik ipini behar. Gorputza zainduz, berak esango du noiz arte".



MARIA JESUS VELASCO |
ARRASATE

"Ondo ikusten dut beteranoentzako mundialak ospatzea, eta aurrean Donostian izan denez hobeto, bestela norberaren poltsikotik atera behar da guztia ordaintzeko dirua eta nahiko garesti ateratzen da. Oro har, hedabideek kasu gutxi egin diete beteranoen probei".

Elgetar honek 24 urte bete berri ditu, eta urtebetetzeko opari, aurtengo denboraldian Eibarreko lehen taldean jokatu zuela esan zioten. Aste honetan,

gainera, Carlos Terrazas entrenatzaileak lehenengoz sartu du deialdian. Ilusio handiarekin dago, eta aurtengo helburua joan den urteko denboraldia hobetzea da.

Zail dago, baina ahaleginak egingo dituztela esan zigun. Lehen partidua irabazi ez bazuten ere, gutxika-gutxika hobetzen joango direlakoan dago Koldo.

KOLDO EROSTARBE | EIBAR FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

“Eibarrera datorren jokalaria lana gogor egiteko gogoarekin dator”

Jokin Etxebarria

Eibarreko lehen taldera aurtengo zara. Zer moduz aurkitzen zara taldean?

Talde barruan oso gustura. Orain denak gabiltza bata bestea ezagutzen, jende berri asko etorri garelako taldera aurtengo, eta oraindik ere elkar ezagutzen gabiltza. Baina dagoen giroarekin oso gustura.

Joan den urtean ere denboraldiaurreko lehen taldearekin egin zenuen. Baina aurtengo gora igotzeko aukera eman dizute. Pozik?

Bai, noski. Oso pozik nago. Gutxienez lehen taldean jokatzeo aukera eman didate. Horretarako ibili naiz lanean azken urteetan beheko taldean, lehen taldearekin jokatzeo aukeraren baten zain. Azkenean aukera hori etorri da. Ezin kekatuko naiz.

Ezberdintasunik ikusten duzu Mendilibar eta Terrazasen artean?

Ezberdintasun handia dago. Bakoitzak bere lan egiteko era dauka eta futbola ikusi eta bizitzeko era desberdinak dituzte. Biak nahiko gainean egoten dira, baina bakoitzak bere izaera dauka eta futbola era ezberdinean ikusten dute.

Joan den urteko denboraldia errepikatzeo gai izango zarete?

Ez dakit errepikatuko dugun ala ez. Gutxienez ahaleginak egin behar ditugu aurreko urtekoa hobetzeko, eta horretarako gabiltza lanean.

Beraz, zuen helburua igotzea izango litzateke.

Igotzea, edo nahi bezala deitu. Joan den urtekoa hobetzea bai behintzat. Ahal izanez gero, noski. Ahaleginak egingo ditugu.

Urtero jokalaria berri pila bat etortzen dira taldera, eta Eibarrek kanpaina ona egiten du beti. Non dago Eibarren sekretua?

Kontuan hartuta taldea nolako den, Eibarrek beti eduki behar duen lehen helburua maila mantentzea da, eta gero ahalik eta goren bukatzen ahalegin-

du. Orain arte urteak daramatzate hori eginez.

Sekretua non dagoen? Alda-geletan dagoelakoan nago. Sekulako giroa egoten da bertan, eta horrez aparte, hona datorren jokalaria lana gogor egiteko gogoarekin dator, bere etorkizunari begira dator, mailaz hobetzeko talde polita da eta Eibar. Erakusleihen bikaina dugu talde hau goiko mailari begira.

Hala ere, liga ez duzue nahi bezala hasi.

Partidua ondo hasi genuen, eta gero, ez dakit nerbioengatik edo zergatik izan zen, baina azkenean, ez genuen partidua onajokatu. Galdu egin genuen; orain, hori berriz ez gertatzeko lanean gabiltza.

Kopan, ordea, Levanteri irabazi zenioten.


Bai, hori da. Hor ikusten da, argi eta garbi, edozein talderi irabazteko gai garela, baina galdu ere edozeinen aurka egin dezakegula. Garbi dagoena da Bigarren maila oso gogorra dela eta denboraldi zaila izango dela aurtengoa ere.

Zer iruditzen zaizu Kopan gertatu dena Bigarren B mailako taldeekin?

Egia esan ez dakit zer gertatu den. Baina nire ustez, talde guttiak, bai lehen mailakoek eta bai-

“Orain denok gabiltza bata bestea ezagutzen, jende berri pila bat etorri gara eta”

“Mendilibarrek eta Terrazasek era oso ezberdinean ikusten dute futbola”



Koldo Erostarbe elgetarrak Eibarren jokatu du aurtengo denboraldian.

ta Bigarren B mailakoek, aukera berdinean eduki beharko litzukete, eta denak zozketa batean sartu beharko lirateke.

Zergatik jokatzen duzu 23 zenbakiarekin?

Ez daukat arrazoi berezirik. Egokitu zitzaidana da.

“Gutxienez ahaleginak egin behar ditugu joan den urtekoa hobetzeko”

“Edozein talderi irabazteko gai gara, baina baita edozeinen aurka gaitzeko ere”

Aurtengo denboraldian ere talde eraberritua izango du Eibarrek

Dagoeneko tradizio bilakatu da Eibarren denboraldi hasierarako jokalaria berri pila bat ekarri beharra. Joan den urtean egindako denboraldi bikaina dela eta jokalaria askok talde handiagoetara alde egin dute. Beste batzuk, iaz utzitakoak, euren klubetara bueltatu dira; horrek Eibarko zuzendaritza denboraldi berriari aurre egiteko 6 jokalarirekin utzi zuen. Lana franko egin ondoren, 18 jokalaria berri ekartzea lortu dute. Askok, gainera, lehen mailan esperientzia izandakoak, Etxebarria, Arriaga edo Azkoitiaren kasuak, esaterako.

Aurrekontu txikia -Bigarren mailako baxuenazitatearen desabantailetakoa bat jokalaria ezin finkatzea da. Fitxaketa asko egiteko dirurik ez edukitzeak, beste talde batzuek jokalaria utzi beharra dakar. Baina urtero-urtero bigarren mailari eustea lortzen du talde armeroak; 16 dira dagoeneko Bigarren mailan jarraian egingo dituztenak. Ez da marka makala.

Aurtengo, gainera, bi debagoiendar izango ditugu taldean. Batetik, Imanol Etxebarria beterranoak etxerako buelta hartu du, eta bestetik Koldo Erostarbe elgetarrak bere lehen aukera izango du Bigarren mailan.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- The Sinters eta De Rumbes taldeek surf doinuak ekarri zituzten Oñatira zapatuan | 24
- Puerto Ricoko Karibetar Abesbatzak emanaldia egingo du bihar, martitzena Aramaion | 27

CASABLANCA GAZTETXEA



Oñatiko Triskantza musika taldeko gazteak izan ziren lehenengoak taula gainera igotzen.

M.D.

KONTZERTU ARRAKASTATSUA | TRISKANTZA, SOSPECHOSOS, KRIMEN, NABEK ETA KLORATITA TALDEEK KONTZERTUA EGIN ZUTEN EGUBAKOITZEAN

Gaztez lepo egon zen Oñatiko gaztetxe okupatua egubakoitzean

Berrehun bat gazte elkartu zen egubakoitz arratsaldean Oñatiko gazte talde batek okupatu berri duen Casablanca gaztetxean egin zen kontzertura. Bost talde aritu ziren taula gainean

Marijo Deogracias

Arratsaldeko seiak bueltan entzun ziren lehenengo gitarra hotsak Oñatiko Casablancako eskoletan. Hantxe hartu dute ostatu herriko gazteek eta Gaztetxe bihurtu dute Oñatiko Gazte Asanbladakoek. Itzelezko beroa egiten zuen arren, berrehun bat gazte animatu ziren aldapan gora hilabetean atondu duten Casablanca gaztetxea ikusteko. Oñatiko gazteekin batera, Arrasate eta Bergarako gazteak ere animatu ziren Casablancara hurbiltzen.

Kolore biziarekin margotu dute eta argia ere badute; transformadore bat jarri zuten kanpoaldean musika tresnak indar guz-

tiarekin entzuteko. Gasolioa bota eta bota jardun behar izan zuten. Izan ere, bost musika taldek parte hartu zuten han egin den lehenengo kontzertuan.

Triskantza taldeak hasi zuen kontzertua. Modu nahiko bitxia aukeratu zuten oñatiar gazteek. Kontzertua musu-truk zela eta, "Denak kanpora; hau ez da debalde, musu-truk da!" esaten hasi ziren Triskantzakideek. Hortaz, gaztetxea hustu eta elkarri musuak eman ostean ekin zioten saioari. Hiru ordu laurdeneko emanaldian Delirium Tremens bertsiorik ere egin zituzten.

BERTSIO EZAGUNAK

Sospechosos taldea, hau ere oñatiarra, izan zen bigarrena taula-

ratzen. Ordurako itzelezko beroa egiten zuen Casablancan eta jendea sartu-irtenekin saiatu zen pixka bat freskatzen. Animoak bero-bero eta Sospechosos talde-

Oñatiko lau talde eta Bilboko bat aritu ziren 23:00ak arte Casablancan

Zapatuan eta domekan ere kontzertuak antolatu zituzten

koen bertsioek giroa gehiago berotu zuten eta publikoa kantuan eta jauzika aritu zen.

Krimen eta Nabek taldekoak ere animatu ziren jotzera. Hiru barik bost talde aritu ziren Casablancan eta ia gaueko 11k arte entzun ziren gitarra hotsak.

Kontzertuaren ostean, lokala garbitzen geratu ziren gazteak. Uste baino gehiago luzatu zirenez, azkar-azkar dena jaso eta gauerdia iritsi aurretik alde egin zuten "23:30erako ez ziren inor geratu Casablancan".

Zapatuan Arrasateko talde bat gonbidatu zuten Casablancara eta eta domekan ere kontzertuak eta bertso saioa antolatu zituzten. Jende dezente batu zen bi egunetan.

OKUPAZIOA | UZTAILA ETA ABUZTUAN ATONDU DUTE CASABLANCAKO ESKOLA ZAHARRA

Udalak berrogeita zortzi orduko epea eman die Oñatiko Gazte Asanbladakoei Casablanca husteko

Gaur betetzen da Udalak emandako husteko agindua. Egubakoitzean jaso zuten agindua

Casablanca auzoko eraikina erortzeko arriskuan zegoela eta Udalak botatzea erabaki zuen

M.D.

Oñatiko gazte talde batek Casablanca auzoko eskola zaharra okupatu zuenetik bi hilabete pasatu dira. Ikasturte hasieran Oñatiko Gazte Asanblada legez antolatzea erabaki zuen Gaztelekuko gazte talde batek eta harrezkero eurek gestionatutako gaztetxe baten alde aritu dira. Herrian Casablancako eskolak legez ezagutzen den eraikina okupatu zuten uztailean eta harrezkero, porlanezko adreiluz hormak altxatu dituzte, margotu, barratxoa eraiki, ekitaldietarako taula bat egin dute eta atea ere jarri dizkiote.

Casablancako eskolaren ardura Udalarena denez, Andoni Gartzia Oñatiko alkatea han izan zen joan zen astean gazteak zertan ari ziren ikusten. Bide batez, azaldu zien lokalak botatzeko agindua duela orain dela bi urtetik.

Alkateak azaldu digunez, Udalak argi dauka Gaztelekua dela gazteendako apustua. "Gazteentzako beste proiektu bat bazutela esaten hasi ziren, baina mahai gainean ez dute ezer jarri. Gaztelekuan beraientzako txoko bat egokitzea ere proposatu die-

gu, baina hori ere ez dute nahi. Argi dagoena da okupatutako lokal horretan ezin direla geratu; ez ditu gutxieneko segurtasun baldintzak betetzen, botatzeko erabakia aspaldi hartuta dago. Arduragabekeria litzateke han geratzen lagako bagenieke. Zerbait gertatuz gero geu gara arduradunak. Gure ustez Gaztelekuak erakutsi du hamar urte hauetan balekoa dela eta sinistuta gaude hori dela bidea. Hala eta guztiz ere, beste batzar bat egiteko geratu ginen eta eguna jartzeko zain gaude", adierazi digu Gartzia.

Gazte Asanbladako kideek ordea ez dute gauza bera pen-

Casablancako eskolak uztailean okupatu zituzten gazteek

Gaztelekuaren aldeko apustua egiten du Udalak gazteendako topagune legez



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Beheko solairuko hormak altxatu dituzte gazteek eta atea ere jarri dizkiote lokalari.

tsatzen. Diotenez, "Gaztelekua azpiegitura legez aparta da, baina ez dugu atsegin hura gestio-natzeko era. Erabakiak guk geuk

hartu nahiko genituzke eta ez Udalaren baimenaren zain egon zerbait egin gura dugun bakoitzean". Egubakoitzean, atera-

tzeko 48 ordu zutela adierazi zieten gazteei, baina han geratuko direla esan dute. Baita gaua han egingo dutela ere.

Hamar urte betetzen ditu aurten Oñatiko Gaztelekuak

Gazteen heziketan, prestakuntzan eta aisialdian eragiteko asmoz Gaztelekuaren formula asmatu zuen Oñatiko Udalak orain dela hamar urte. Zerbitzu iraunkorrak eta ekintzak uztartzen dira han, Topalekuan, informatika gelan, informazio gunean eta laster irekiko dituzten argazki laborategian eta bideo tailerlean.

13 eta 30 urte bitarteko 2.600 gazte daude Oñatin eta, batez beste, urtero, 100 erabilzaile berri jasotzen ditu Gaztelekuak.

Aurten 140.000 euroko aurrekontua izan du Gaztelekuak eta horietatik 40.000 euro ekintzak egiteko bideratuta dago. Hamargarren urteurrena gogoratzeko ekintzak prestatzen hasita daude, bai eta datozen urteetarako gestio plana ere. Horrez gainera, hobekuntzak egitekotan dira eraikinean.

Gaztelekuan egin beharreko ekintzak batzordean onartzen dira. Batzordea Gaztelekuko dinamizatzaileak, gazte asanbladak eta udaletxeko gazteria batzordeburuak osatzen dute. Gazte asanblada orain dela lau urte hasi zen batzordean parte hartzen, eta parte-hartze aktiboa duela aitortu behar da; iaz esaterako, Gaztelekuan egin ziren ekimen guztien %15 baino ez zen Udalaren ekimenez izan; beste guztiak gazte asanbladak proposatutakoak izan ziren.

Eguen eta egubakoitzak izaten dira, orokorrean, jende gehien batzen diren egunak. Hala ere, zerbitzu bakoitzaren arabera erabilzaileak ere aldatzen dira. Taberna ere badago kontzertu egunetan. Gazteek gestionatzen dute; 18 urtetik gorakoek, horrela adostu baitzuten bere egunean.





The Sfinters taldeak hasi zuen surf gaua Atzeko kalen.

AINZANE IRIZAR

Surf estiloko doinuak entzun ziren Atzeko kalen zapatuan

Tolosako The Sfinters eta Santandergo Derrumbes taldeak aritu ziren Oñatin kontzertu bitxi eta beroan

Non. Oñatiko Atzeko kalen.
Zenbat jende. Ehun bat lagun.
Iraupena. Ia bi ordu.

Asteleheneko Goienkaria

Eguenean hasiko dira Oñatiko Atzeko kaleko jaiak, baina giroa berotzen joateko Kultura kalean egitasmoak kontzertua ekarri zuen bertara zapatu gauean. Tolosako The Sfinters eta Santandergo Derrumbes taldeak aritu ziren ia bi orduz, inguru honetan gutxitan –edo inoiz ere ez-entzun izan den surf estiloko doinuak egiten.

Bi gitarra, baxua eta bateria jotzailez osatutako bi taldeek emanaldi bikaina egin zuten.

TOLOSARRAK LEHENENGO

The Sfinters taldeak ekin zion emanaldiari. Musika instrumentala egiten dute tolosarrek eta erreperitorio laburtzua duten arren, urtebeteko eskarmentua

50-60 hamarkadetako surf estiloko doinuak entzun ziren Oñatin

Kultura kalean egitarauaren azkeneko emanaldia izan zen Atzeko kalen egindakoa

igarri zitzaien. 50-60 hamarkadetako doinuak surfari eta banturoei egindako erreferentziekin nahasteak ikuskizun freskoa sortzen du eta gustura egon zen publikoa emanaldian. Txaloak ere beroagoak izan ziren emanaldiaren bigarren partetik aurrera.

Santandergo Derrumbes taldearen emanaldira Donostia aldetik ere gerturatu zen jendea Oñatira eta txaloek agintzen dutenez, bisa ere egin behar izan zuten lau musikariek.

Derrumbes taldekoek emanaldi luzeagoa egin zuten. Denbora gehiago daramate musika egiten eta kanta sorta ere handiagoa dute –diskoa ere kalera zuten.

KULTURA KALEAN AMAITU DA Zapatu gauekoa izan da Kultura kalean egitasmoaren azkeneko emanaldia. Abuztuan zehar hainbat kultura ekintza egin dituzte Oñatin, urtero antolatzen duten Kultura kalean egitasmoarekin.



ERAKUSKETA | MARI FRAN ERAÑA BERGARAN

Mari Fran Eraña margolari eibartarrak margo erakusketa zabaldu zuen egubakoitzean Bergarako Nahikari tabernan. Hamabi lanek osatzen dute erakusketa eta hil bukaera arte egongo da ikusgai. Arrate Kultur Elkarteko margo eskolako da eta Elisabet Egueren ikasle. Ez da denbora asko hasi zela margotzen eta marrazkia eta olio jorratzen baditu ere, akuarela teknikoak eta gustukoak. | A.G.



EMAKUMEEN ASTEBURUA | BERGARAKO GAZTETXEAN

Emakumeari eskainitako asteburua egin dute Bergarako gaztetxean. Hainbat ekitaldi egin dituzte, guztiak emakumezkoari lotuak: besteak beste, emakumeek dituzten kezken gaineko tailer teoriko eta praktikoa eta musika emanaldia. Emanaldi hori zapatu gauean izan zen. Jende ugari batu zen gaztetxean, nahiko gaztetxoak gehienak eta emakumeek egindako musika entzuteko aukera izan zuten. Irudian Lost Girls taldea. | A.G.



LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:

Kataratak: Miopia / Hipermetropia.

Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatuak

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79



ARETXABALETAKO ANDRAMAIXAK GOIENA TELEBISTAN

Aretxabaletan bertan egotea bezala

JAIK 2005

Aurkezleak:

Mikel Aranburu eta Kepa Errasti

Irailaren 6an / 21:30 eta 23:00

Emanaldi berezia:

Bat Gehio-ren kontzertua

Irailaren 6an / 21:00 eta 22:30

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Bere aurpegia telebistarengatik ezaguna bada ere, makinatxo bat urte darama Gurutze Beitiak taula gainean. Orain dela hamar urte hasi zen zale talde batekin antzokiz antzoki, eta Estatu mailako

hainbat txapelketa irabazi zituzten. Orain telebistan ere badabil, eta gustura dihardu kamera artean ere. Elgetan *Cocidito Madrileño* antzezlanarekin izan dugu asteburuan Gurutze, eta datorren astean

Tarregako antzerki jaialdian aurkeztuko dute menu politiko berezi hau. Gurean, bederen, izugarrizko arrakasta izan dute. Elgetan ere bat beharrean bi emanaldi egin behar izan zituzten.

GURUTZE BEITIA | ANTZEZLEA

"Ia edozein gai jorra dezake umoreak, eta herri serioa izanda ere, alaiak gara"

Jon Berezibar

Bilboko zale talde ezagun batek errebelazio aktore izendatu berri zaitu. Nola hartu duzu saria?

Ilusio handia egin dit, normalean oso antzezle onei ematen diete eta sari hori. Askotan telebistan agertzen ez bazara, existitzen ez zarela ematen du, eta antzerkian egindako lanagatik izendatu naute; horregatik ere balio berezia dauka niretzat. Urte asko daramat honetan, lehenengo zale moduan eta orain profesional moduan, eta oso pozik hartu nuen saria.

Sariak jasotzeko orduan popularitatea ondo dago, baina nola moldatzen zara kalean jendeak ezagutzen zaituenean?

Ohitsu egiten zara azkenean, eta, egia esan, behar badut maitasun handia jasotzen dut jendearen aldetik. Beste batzuetan, adibidez, metroan zoazenean eta jendea begira geratzen zaizunean, ez da horren eroso. Baina orokorrean gauza politikak esaten dizkirate.

Cocidito Madrileño antzezlanarekin ere erantzun on bera jaso duzu?

Pozarren gaude, ze oso ezohikoa baita antzezlan batek horren harrera ona izatea euskal eszenan. Egon garen antzoki guztiak bete ditugu. Kontuak aterata ia 50.000 ikusle izan ditugu. Euskal Herrian kopuru hori lortzea ez da gauza erraza.

Euskal Herriatik irten zarete antzezlanarekin?

Datorren astean Tarregako jaialdira goaz lehen aldiz. Ez dakit Espainiako ikusleek guztiz ulertuko dutenik. Ez adimen kontuengatik, bertan hitz egiten diren gaiengatik baizik: ikastolak, politika, irratsaioa ezaguna da... Hala ere, uste dut lanaren espiritua, behintzat, ulertuko dutela, nahiz eta euskal errealtatea gertutik bizi ez izan. Mota askotako konpainiak joango dira,

eta era askotako edukiak daramatzagu.

Eta noizko euskal cocidito bat, hemengo hedabideetako astakeriekin?

Ez dakit hemen horren erraza izango zen. Uste dut hemengo hedabideek errespetu handiagorekin egiten dutela lan, eta gertuagotik ezagutzen dituztela gertaerak. Ez dut uste, behintzat, hemen Estatu mailako hedabideetako astakeriak esaten direnik, lan egiteko modua bestelakoa da hemen.

Antzezlan bizia da zuena; moldatzen dituzue edukiak aktualitatearen arabera?

Aldatu da zer edo zer. Adibidez, euskal sukaldarien polemika hura guztia gehitu dugu. Oso aberatsa da zentzu horretan. Radio Nacional de España, COPE eta SER irratiak jasotzen ditugu eta gidoira moldatu. Zerbait berria gertatzen bada eta zuku nahiko badauka, beti sar daiteke *cociditoan*, eta horrek bizitasun handia ematen dio egiten dugunari.

Komikoaren azalean eroso ikusten zaitugu; bada, drama eta bestelako generoetan zelan konpontzen zara?

Oso genero atsegingarria da umorearena, zuzenean bizi ditu-

"Momentu txarretan jendeari barretxo bat ateratzea oso atsegina da"

"Ordua zen politika kontuetan ere umore pixka bat egiten hasteko; osasungarria da"



Gurutze Beitiak Elgetako Espaloian egin zigun harrera, soineko artean.

AINZANE AGIRRE

zu ikuslearen algarak. Lan dramatikoagoetan ere igarri daiteke emozioa baina beste era baten, irria beti da bat-batekoagoa. Asko

betetzen duen lana da gurea. Lagunek eta kaleko jendeak ere askotan kontaktatzen dizute zelan momentu txarren baten barretxo bat aterarazi diezun. Mundutik deskonektatzen laguntzea oso lan atsegina da eta jendeak askotan esaten dit.

Umorea bogan egon da azkenaldian monologo eta antzekoekin. Mesedegarria izan da?

Hasiara baten bai, baina jendea nekatzen hasi da. Ameriketako Estatu Batuetatik datorren *talk-show* generotik dator. Berez funtzionatzen duen generoa da *talk-showa*, baina betiere egunerokotasunari buruzko pasadizokak badira, edonori gertatu ahal zaizkion egoeretan. Hala eta guztiz ere, agian abusatzen hasi gara dagoeneko, eta ikusiegiak daude asko.

Umorea, hala eta guztiz ere, oso genero aberatsa eta eskertzekoa da, eta aurrera egingo duela uste dut.

Modan dagoena ere euskal egoera politikoari buruzko umorea da, antza.

Arlo hori jorrazteko ordua zela uste dut, beharra geneukala. Inpresioa daukat euskaldunok gure buruari barre gutxi egiten diogula eta politika gaitan tabu asko zeudela.

Klase eta estiloarekin egindako umoreak, uste dut, ia edozein gai jorrazteko moduan dagoela. Euskaldunok herri serioa gara, baina horrek ez du esan gura alaiak ere ez garenik. Ordua zen jada gai batzuen inguruan barre ere egiteko. Umorea terapeutikoa da eta asko laguntzen du.

"Datorren astean Tarreraga goaz lehen aldiz. Ez dakit Espainiako ikusleek ulertuko duten"

"Klase eta estiloarekin egindako umoreak ia edozein gai jorra dezake"

Udako oporretan bizi izandakoekin sariak irabazteko aukera dago

Oporrak gaitzat dituzten lehiaketak daude abian; tartean, Goienaren argazki sariketa. Batzuek euren bloga ere badute

Leire Kortabarria

Udako oporretan ikusi eta bizi izandakoak aprobeza daitezke zenbait lehiaketatan parte hartu eta sariak irabazteko.

Horietako bat da Goienaren argazki lehiaketa. Argazkien gaia uda izanda, asko orain animatuko dira euren argazkiak bidaltzea. Jasotako argazkiak plazaratuko dituzte lehiaketaren blogean, www.goiena.net/blogak/argazkiak helbidean. Orain arte, 24 lagunengatik argazki bana dago.

Argazkiak Goienaren edozein egoitzara eraman edo argazkiak@goiena.com helbide elektronikora bidali behar dira. Gura bezain beste argaz-

ki bidal daitezke. Sariak honakoak dira: Olympus E-300 reflex argazki-kamera digitala; Asturiasen edo Kantabrian bi lagunendako asteburuko egonaldia; eta Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean bi lagunendako afaria edo bazkaria.

BESTE BI LEHIAKETA

Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek *Gomendatzen dizut: merezi du!* oporretako gomendio lehiaketa deitu dute, aurreko edizioetako arrakasta ikusita. Gomendioa fitxa baten azaldu behar da, arrazoi batzuk emanaz eta, ahal dela, argazkiarekin. Argazkia bidaliz gero, lehiaketaren blogean argitaratzeko aukera dago, www.aizue.com webgunean. Sari bezala, landetxe baten egonaldia zozketatuko dute.

Sari bera emango dio Aramaioko Txirritola elkarteak bere postal lehiaketako zozketa irabazten duenari. Postalak bidaltzeko garaiz zaudete oraindik, honako helbidera: Kultura etxea; Nardeaga kalea, z/g; 1160, Aramaio.

Labur

Puerto Ricoko abesbatza bat izango da bihar, martitzena, Aramaion

Puerto Ricoko San Juango Karibetar Abesbatzak emanaldia egingo du bihar, martitzena, Aramaioan elizan, 20:30ean. Arabako Foru Aldundiak urtero antolatzen du Arabako Abesbatzen Nazioarteko Jaialdia, eta horren barne dago Aramaioko emanaldia. Hala ere, Aramaioko antolakuntza herriko Bizente Goikoetxea abesbatzak egin du. Urtero etortzen da talde gonbidatu bat herrira.

Elizako emanaldiaren ondoren, afaria egingo dute Puerto Rico eta Aramaioko abesbatzek.

Yohana Madinabeitia diseinatzaileak jostintza ikastaroa emango du

Yohana Madinabeitia diseinatzaileak jostintza ikastaroa emango du Oñatin, eta izenemate epea zabalik dago 607 31 51 12 telefonon. Ikastaroa edozeini zuzenduta dago: josten ikasten hasi gura duenari zein hobetzeko asmoa duenari.



Zinema denboraldia hasi da Elgetan eta Oñatin; laster, Arrasaten ere bai

Zinema denboraldia hasi berri da Debagoienan. Hala, Oñatiko zinema aretoan, kultura etxean, *La morada del miedo* filma emango dute gaur, astelehena, 19:30ean. Etzi, eguaztena, Elgetako Espaloia antzokian, komedia klasiko bat ikusteko aukera izango da: *Arsénico por compasión*, Frank Caprarena. Cary Grant da protagonista. 21:30ean izango da emanaldia.

Arrasateko Amaia antzokian hilaren 16an, egubakoitza, hasiko da zinema denboraldia, *La guerra de los mundos* filmarekin.

Hitzorduk



GANBARA ABESBATZAK UMEENDAKO KANTU TAILERRA SORTU DU | Kantu Tailerrean Ganbara Txikin eta Txikitxon eman daiteke izena

Oñatiko Ganbara Abesbatzaren berritasuna da, ikasurte honetarako, Kantu Tailerra. Modu dinamikoan -perkusio musika-tresnak egiten eta jotzen, ikasten; dantzan, kantuan...- 5 eta 6 urteko umei abesbatzen munduan sartzen laguntzeko proiektua da.

Izena eman daiteke Kantu Tailerreko, eta baita iaz sortutako bi taldeetarako, Ganbara Txiki (10-16 urte) eta Ganbara Txikitxo (7-9 urte). Abestea gustatu eta ondo pasatu gura duten umeendako taldeak dira hirurak. Argibideetarako, jo www.ganbara.org webgunera.

IKASTAROK |

• Txalaparta ikastaroa emango dute Aramaion

Txalaparta ikastaroa antolatzen dabil Aramaioko Txirritola euskara elkarteak. Izenemate epea laster zabalduko dute.

• Elikaduraren ginekoko bekak, Eroski fundazioaren eskutik

Eroski fundazioak ikerketa zientifikoaren inguruko formazioarako bekak deitu ditu, unibertsitateko goi mailako tituludunendako. Hezkuntza eta ikerketa zientifikoa bultzatu gura ditu osasun eta elikadura arloetan. Dirulaguntza 18.000 eurokoa izango da, eta urtebete eta hiru urte arteko epea izango dute ikasleek lana egiteko. Interesa dutenek irailaren 30era bitartean dute epea Eroski Fundazioarekin harremanetan jartzeko.

• Bergarako KZGunean, Internet ikastaroak

Bergarako KZGuneak jakinarazten du Interneteko oinarritzko ikastaroa emango duela irailaren 5etik 21era, 09:00etatik 11:00etara eta 16:00etatik 18:00etarako ordutegietan; eta irailaren 19tik 30era bitartean, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Horrez gain, hainbat mintegi ere emango dituzte irail osoan zehar. Argibide gehiagorako, jo KZGunerari, Irizar jauregian.

DEIAK |

• Oñatiko musika eskolan izena emateko modua

Bihar, martitzena, bukatuko da musika eskolan izena emateko epea. Edozein adineko jendearendako dago zabalik. Joan euren bulegoetara 18:00-20:00 ordutegian.

MUSIKA |

• Egitarau oparoa prestatu du Arrasateko 3.60 aretoak

Honako kontzertu eta bideo emanaldiak izango dira datorren asteburuan: Koldo (meataka!) (hilak 10, 03:00etan), eta bideo-klip emanaldia (hilak 11, 23:00etan). Irail osoan emanaldi gehiago izango dira, honakoak: Capsula eta Los Crentinos (hilak 17, 23:00etan); Loren (educative rec) (hilak 17, 03:00etan); Fermin magoaren emanaldia (hilak 23, 23:00etan), Bad f-Line (hilak 24, 23:00etan), Gonzalo Morbid (elektronische) (hilak 24, 03:00etan) eta Red Alert eta Enboscada taldeak (hilak 30, 23:00etan).

LEHIAKETAK |

• XII. CAF-Elhuyar zientzia-dibulgazio arloko sariak

XII. CAF-Elhuyar sariak deitu dituzte CAF enpresak eta Elhuyar fundazioak, zientzia-dibulgazioa sustatzeko. Dibulgazio-artikuluaren sailean, hiru sari nagusi (1.000, 500 eta 300

eurokoak) eta 25 urtetik beherako onenarendako beste bat (300 eurokoa) banatuko dituzte; eta dibulgazio-liburu bat idazteko proiektu onenak 4.500 euroko beka jasoko du eta, urtebetean, Elhuyarrek liburu argitaratuko dio. Mugaguna da abenduaren 1a. Argibideetarako, jo www.elhuyar.org edo www.zientzia.net webguneetara.

• Portugaleteko Uri Urena ipuin lehiaketa abian dago

XV. Portugaleteko Uri Urena delako literatura lehiaketa deitu du Portugaleteko Udalak. Gehenez ere 15 orriko ipuinak eskatzen dituzte. Hiru kopia bidali behar dira honako helbidera: Portugaleteko Udala; Hezkuntza eta Gazteria Saila; XV. Ipuin Lehiaketa; Solar plaza, z/g; 48.920, Portugalete. Mugaguna da irailaren 26a. Honako sariak banatuko dituzte: irabazleari, 1.700 euro; bigarrenari, 1.000; hirugarrenari, 550; eta akzesit bat eman ahal izango dute, 350 eurokoa.

MUSIKA |

• Liburutegi batzuek udako ordutegia dute oraindik

Eskoriatzan, eguaztena arte irekiko dute udako ordutegian; Aretxabaletan eta Arrasaten, hilaren 12a, astelehena, arte; eta Antzuolan, azkenik, hilaren 15a, eguena arte.

Eguraldia



Temperaturek behera eta euria egingo du eguenera bitartean

Zerua hodeitsu izango dugu gaur ere eta euria egingo du. Baliteke zaparrada gogorren bat ere izatea. Temperaturek behera egingo dute. Bihar, martitzena, eta etzi, eguaztena, ere antzekoak izango dira: egun hodeitsuak eta euritsuak; arratsaldean, gainera, handitu egingo da zaparrada arriskua. Ten-

peraturei dagokienez, behera egingo dute.

Eguenean, aldatzen hasiko da eguraldia eta hobera egingo du. Ez du hainbeste euri egingo eta temperaturek gora egingo dute; zerbait epelduko du. Egubakoitza ere antzekoa izango da. Eguzkia ere ikusiko dugu, tarteka.

Goardiako farmaziak

ARRASATE		
Astelehena, 5	Irizar	Erguin kalea 11 (943 79 12 39)
Martitzena, 6	Amezua	Santa Marina 32 (943 79 09 74)
Eguaztena, 7	Azkoaga	Ferrieras kalea 1 (943 79 15 15)
Eguena, 8	Azkoaga	Iturriotz 17 (943 79 79 99)
Egubakoitza, 9	Irizar	Erguin kalea 11 (943 79 12 39)

BERGARA		
Astelehena, 5	Estella	Matxiategi 5 (943 76 19 63)
Martitzena, 6	Camacho	Oxirondo 4 (943 76 11 74)
Eguaztena, 7	Estella	Matxiategi 5 (943 76 19 63)
Eguena, 8	Camacho	Oxirondo 4 (943 76 11 74)
Egubakoitza, 9	Estella	Matxiategi 5 (943 76 19 63)

OÑATI		
Astelehena, 5	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)
Martitzena, 6	Anduaga	San Lorentzo 3 (943 78 21 16)
Eguaztena, 7	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)
Eguena, 8	Anduaga	San Lorentzo 3 (943 78 21 16)
Egubakoitza, 9	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)

ARETXABALETA		
Astelehena, 5	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 6	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 7	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Eguena, 8	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 9	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK	
OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06	Laian / Oñati	943 71 63 11
Eskoriatza	943 71 44 07	Hondakindegia Alternatiboak	
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Arrasate	943 77 11 43
Oñati	943 78 04 11	Bergara	945 76 44 42
		Oñati	943 78 36 67
GARRAIOAK			
Eusko Trenbideak	943 45 01 31	Kiroldegia	
PESA	902 10 12 10	Aramaio	945 44 53 35
Taxiak		Arrasate	943 77 16 77
Arrasate	943 79 12 22	Aretxabaleta	943 71 26 28
Aramaio	945 44 50 33	Bergara	943 76 56 41
Aretxabaleta	943 79 22 33	Elgeta	943 76 82 84
Bergara	943 79 12 22	Eskoriatza	943 71 53 28
Eskoriatza	943 71 40 59	Oñati	943 71 63 75
Oñati	943 78 03 65	Kultura Etxeak	
RENFE	943 28 35 99	Antzuola	943 76 60 65
DEBAGOIENA			
Mankomunitatea	943 79 33 99	Aramaio	945 44 53 74
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93	Arrasate	943 77 01 05
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47	Aretxabaleta	943 71 10 27
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15	Bergara	943 77 91 58
Zerga Bulegoa	943 76 58 63	Eskoriatza	943 71 46 88
Euskara Taldeak		Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Debague	943 77 12 28	Oñati	943 78 03 53
AED / Arrasate	943 77 12 28	Udalak	
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34	Antzuola	943 76 62 46
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85	Aramaio	945 44 50 16
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70	Arrasate	943 79 09 00
Jardun / Bergara	943 76 08 19	Aretxabaleta	943 71 18 62
		Bergara	943 77 91 00
		Elgeta	943 76 80 22
		Eskoriatza	943 71 44 07
		Leintz Gatzaga	943 71 47 46
		Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA	
Astelehena, 29	13 · 21 · 28 · 32 · 42 · 44
Osagarria: 3 Itzulketa: 1	
Martitzena, 30	2 · 7 · 16 · 28 · 41 · 46
Osagarria: 6 Itzulketa: 5	
Eguaztena, 31	13 · 14 · 16 · 17 · 23 · 44
Osagarria: 36 Itzulketa: 9	
Egubakoitza, 2	5 · 26 · 27 · 30 · 37 · 41
Osagarria: 33 Itzulketa: 7	

ONCE	
Astelehena, 29	78.470
Martitzena, 30	56.621
Eguaztena, 31	70.197
Eguena, 1	90.920
Egubakoitza, 2	19.921
Kupoitzarra (011 seriea)	
Domeka 4	90.283
Kupoitzarra (026 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA	
Eguena, 1	16 · 27 · 35 · 43 · 46 · 47
Osagarria: 2 Itzulketa: 4	
Zapatua, 3	3 · 5 · 7 · 13 · 36 · 40
Osagarria: 11 Itzulketa: 0	
Domeka, 4 (Saritzarra)	13 · 26 · 32 · 44 · 53
Itzulketa: 0	

Gazte zerbitzuak

BEKAK I
• **Erdi mailako ikasketak.**
KUTXA. 2005. urteko Socrates-Comenius programan parte hartzeko dirulaguntzak. Epea: azaroaren 17tik 28ra, biak barne.
• **Leonardo Programa.** KUTXA. 2005. urteko nazioarteko Leonardo programa parte hartzeko dirulaguntzak. Epea: azaroaren 17tik 28 ra, biak barne.
IKASTAROAK I
• **Kutxa IKASGELAK.** Izena emateko epe berria jarri dute. Aurtengo bigarren deialdi honetan 119 jarduera prestatu dituzte. 16-29 urte bitartekoentzat. Epea: Irailaren 1etik 15era arte.
• **Telesailtako gidioen tailerra.** Sarobe, Centro de Artes Escénicas. Gidoiak idazteko

hizkuntzak: euskara eta gaztelania.
LANA I
• **Fisioterapeuta eta zaintzaileak.** Uliazpi Fundazioa. Bi fisioterapeuta eta 23 zaintzaile plaza betetzeko oposizio-lehiaketa deitu dute. Epea: irailaren 14a. Fisioterapeuta lanpostuetarako behar da: Fisioterapien espezializatutako erizaintzako diploma edo fisioterapeuta titulua izatea; baita euskarako 2. Hizkuntza-eskakizuna ere. Zaintzaile lanpostuetarako behar da: Lehen mailako Lanbide heziketako klinikako Laguntzaile titulua edo Batxiler titulua edo baliokidea; baita euskarako 1. Hizkuntza-eskakizuna ere.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com



Antzuola:
• Altzarte okindegia
• Martin okindegia
Elgeta:
• Kioskoa
Bergara:
• Bolintxo okindegia
• Ogizun okindegia
• Konde okindegia
• Olabe okindegia
• Mizpildi okindegia
• Plazako Kioskoa
• Txurrerua Kioskoa
Arrasate:
• Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
• Balantzategi kioskoa
• Portaloiko kioskoa
• Usue paper denda
• Bolintxo Okindegia
• Kurruxko okindegia
Aretxabaleta:
• Errasti kioskoa
• Ibarra estankoa
Eskoriatza:
• Dorleta liburudenda
Leintz Gatzaga:
• Labidea
Aramaio:
• Plazako kioskoa
Oñati:
• Haritza Kioskoa
• Ibarrondo Kioskoa
• Eskolatxo okindegia
• Arantxa okindegia
• Irizar okindegia
• Ogibari okindegia
• Olakua okindegia
• San Lorentzo okindegia
• Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Julen Santacristina
Abuztuaren 4an, 6 urte. Zorionak! Etxekoak. Ane eta Irati bereziki.



ARRASATE
Ainhoa Casares
Abuztuaren 31an, 20 urte. Zorionak, *Kaxim!* Koadrilakoak.



ARRASATE
Ane Juaristi
Irailaren 9an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Olaia Unamuno
Abuztuaren 22an, 3 urte. Muxu bat eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Ane Kortabarria
Abuztuaren 29an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxeko denak.



BERGARA
Xabat Irazola
Irailaren 2an, 8 urte. Urte askotarako! Aiton-amonak eta etxekoak.



BERGARA
Gorka Irazola
Irailaren 2an, 8 urte. Urte askotarako! Aiton-amonak eta etxekoak.



BERGARA
Maren Unamuno
Irailaren 3an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Unax Etxaniz
Irailaren 3an, urtebete. Urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Ane Azkarate
Irailaren 4an, 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak, bereziki, Uxuek.



BERGARA
Jon Barragan
Abuztuaren 5ean, 8 urte. Muxu handi bat. Gurasoak eta bere arreba Ane.



BERGARA
Bladi Agirrebeña
Irailaren 10ean, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Beñat Bizente
Irailaren 16ean 7 urte. Zorionak Garazi eta etxekoan partez.



ESKORIATZA
Arane Zubia
Abuztuaren 24ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.



ARETXABALETA
Antziñe Mendia
Irailaren 7an. Zorionak eta goxogoxo ospatu! Lagun guztiak.



ELGETA
Nerea Canelo
Irailaren 5ean, urtebete. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

Jaiotakoak



Silvia Vazquez Fernandez
Arrasate • 3,050 Kg. Abuztuak 28. Gurasoak: Jesus eta Lidia (Arrasate). Argazkian: Silvia amaren besoetan.




Gorka Sanchez Gonzalez
Oñati • 3,300 Kg. Abuztuak 28. Gurasoak: Jaime eta Maite (Oñati). Argazkian: Gorka amaren besoetan.



Naia Segovia Servide
Eskoriatza • 3,270 Kg. Abuztuak 31. Gurasoak: Delfin eta Mari Mar (Eskoriatza). Argazkian: Rosario eta Mercedes amamekin.



Iker Reparaz Arenaza
Bergara • 3,670 Kg. Irailak 3. Gurasoak: Josu eta Aintzane (Bergara). Argazkian: Iker amaren besoetan.



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza
ezusteko ederra!

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak,
lagunak edo
senitartekoak
zoriondu
nahi badituzu,
ARRASATE IRRATIAK
egunero ematen
dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com
helbidera edo deitu
943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tarte
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
ARRASATE IRRATIA

URTEURRENA

**Antonia
Irala Idigoras**

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 11an,
goizeko 11:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokiari.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

**ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN**

80 euro
943 76 92 71

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Uda giroan' | 10:30

Pedro Andrinua artzaina eta Jon Molina abadea

Pedro Andrinua bergararra hobeto ezagutzeko aukera emango digu Arrasate Irratiak. AEBn artzain aritutakoa da eta bere jardunagatik omenaldia jaso zuen atzo Legazpiko Artzain Egunean. Jon Molina, berriz, Benedicto XVI.aren egon da.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Udako programazioa' | 12:15

Udal Euskaltegiko arduradunari elkarrizketa

Udal Euskaltegiko zuzendari Roberto Altunari elkarrizketa egingo diote. Euskaltegia Errekaldetik Bidebarrietara eraman berri dute. Aldaketa horren gainean, euskaltegiaren beraren gainean eta duten eskaintzaren gainean arituko da Altuna.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Hiru tenpluen arteko ibilaldia, berbagai

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:05

Erregaien garestitzearen gaineko mahai-ingurua

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 11:10

Perretxikoen gaineko hainbat azalpen

Gaur telebistan

GOITB



Eguno musikaren berri, 'Klip@'-n

19:45 Europan eta AEBn gehien entzuten duten musika aurkituko duzue *Klip@* telebista saioan, gaur arratsaldean.

13:45 Emisio hasiera.
13:50 Marrazki bizidunak: *Kazetari ausartak*.
14:30 Ilunpean. Saioren errepikapenak Oihana Elortza aurkezlearekin.
14:45 Eguzki lore. *Usotegiak. Etxalar*.
15:45 *Klip@*. Gaur egungo musika taldeen bideo klipak. Hainbat musika estilo jorratuko dituzte.

19:40 Emisio hasiera.
19:45 *Klip@*. Gaur egungo musika taldeen bideo klipak.
20:00 Berriak. Deiane Arrieta kazetariak aurkeztutako albistegia.
20:30 Marrazki bizidunak. *Kazetari ausartak* eta *Lazkao Txiki*.
21:00 Harmailatik. Gainbegiratu. Julen Iriondorekin.
21:30 Chiloé saioa. Venezuelako, graziatzko lurra.
22:00 Berriak. Gaueko albistegiaren errepikapena.
22:30 Harmailatik. Saioren errepikapena.
23:00 Chiloé saioa. Venezuelako, graziatzko lurra.
23:30 Emisio amaiera.

ETB 1



Gura beste marrazki bizidun 'Betizun'

08:40 Maltzur mendia, Sherezade printzesa, Montana, Sherlock Holmes, Kaixo Gaudil, eta beste asko.

06:40 Udandebelai.
07:20 Zaharrak berri.
07:45 Oporrock 2005.
08:10 Tik Tak Circus.
08:40 Betizu
14:00 Gaur Egun 1.
14:35 Eguraldia.
14:40 Betizu. *Bizargorri, Euli ipuinak, Sorgin Aspertua eta Hiru mosketeroak*.
17:05 Barrebusa.
18:00 Iparraldearen orena.
18:10 Oporrock 05.
18:35 Bidaide. *Hiltzeko eginak*.
19:25 Travel notes.
19:50 Trebe trebeena.
20:00 Betizu.
20:20 Eguraldia.
20:28 Gaur Egun.
20:50 Shin Chan.
21:15 Udandebelai.
21:55 Ero eta bero.
22:55 Kar kar kluba.
23:30 Egi bidean.
03:30 Gerraostea Euskadin.
00:15 Bizitzaren baitan. *Miguel de la Cudra Salcedo*.
01:15 Ubandebelai
01:55 64. *Gaudemus igitur*.
02:20 Oporrock 05.
02:40 Berriketa gutxi.
03:10 Euskal Herriatik.
03:40 Elkartasunaren bideak.
04:55 Osabideak.
05:10 Amama sukaldari.

ETB 2



Doctoras de Filadelfia saioa, gauerdian

00:05 Grahamek Lu-ri eskatuko dio pornografiaren izarrei osasun azterketak egiteko, eta ez enpresako langileei.

06:10 Del país de los vascos. *El pan*.
06:40 Rutas de solidaridad. *Camboya: peligro, no pisar*.
07:15 Embrujada.
08:00 Forum.
08:30 Mundos perdidos.
09:25 Doc. *Cuando elige el corazón*.
10:15 Matrimonio con hijos.
11:20 Stargate. *Los primeros*.
12:10 La cocina de Pedro Subijana.
12:25 Se ha escrito un crimen. *Muerte alatardecera* eta *Escándalo en la escuela*.
14:00 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:50 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
15:55 Pásalo.
17:55 Siempre cine.
20:15 Esta es mi gente. Claudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrearekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 Mi querido kli-kowsky.
23:05 Nip/Tuck: a golpe de bisturí.
00:00 El día en imágenes.
00:55 La zona muerta. *Mente peligrosa*.

TVE 1



Igartiburuk dantzan jarraitzen du

22:00 Maria del Monte, Juncal Rivero, Claudia Molina, Lara Dibildos... eta beste asko lehiari ibiliko dira.

06:00 Canal 24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin, Susana Rozarekin eta Salvador Martín Mateosekin.
10:00 Saber vivir.
11:15 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelako egiten dituzten magazina.
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
15:55 El tiempo.
16:00 Amarte así, frijolito.
16:30 Vuelta ciclista a España.
17:30 España directo.
19:15 Obsesión.
20:15 Gente. Sonia Ferrerarekin eta Maria Jose Molinarekin.
21:00 Telediario 2. Lorenzo Milárekin eta Jesus Alvarezekin.
21:55 El tiempo.
22:00 Mira quien baila. Ane Igartiburuk aurkeztzen duen dantza saioa.
00:15 Caso abierto.
01:15 Telediario 3.
01:45 Ley y orden.
03:00 Canal 24 horas.

La 2



Belako Amerika Kopako aurre estropadak

14:45 Louis Vuitton ACTS Match Race estropada lasterketa eskainiko dute Suitzako Malmo Skane-etik.

06:30 Euronews.
07:30 Los Lunnis. El loco mundo de Tex Avery, *Ed, Edd y Eddy, Benjamin* eta *Flimbes*.
09:45 La historia interminable.
10:35 Dawson crece.
11:25 Los vigilantes de la playa.
13:00 Los Lunnis. *La serie, Agallas, El perro cobarde, Digimon* eta *Los minimonstruos*.
14:45 Vela.
15:15 Saber y ganar.
15:50 Vuelta ciclista a España.
16:35 Un paseo por la naturaleza.
17:30 Los Lunnis.
19:30 Revista a su salud.
20:00 Informativo territorial.
20:30 Vuelta ciclista a España.
21:00 La habitación de las pesadillas.
21:30 Los problemas crecen.
21:55 Sorteo de la Bonoloto.
22:00 La 2. Noticias.
22:35 El tiempo.
22:40 Cine de verano. *La reina de África*. Zuzendaria: John Huston. 1952. Humphrey Bogart, Katharine Hepburn.
00:40 Metropolis.
01:10 El ala oeste de la Casa Blanca.
01:55 Jazz.

Antena 3



Camposek beste denboraldi bati ekingo dio

20:45 *Cada día* saioa ere lanera itzuliko da, oportetan deskantsua hartu eta gero. Plato berriarekin, gainera.

06:00 Las noticias de la mañana.
08:30 Ruedo Ibérico.
10:00 La mujer en el espejo.
10:45 Cada día. Teresa Camposekin.
14:00 Los Simpson. *Homer contra Lisa* eta *El suspenso del perro de Bart*.
15:00 Noticias 1.
15:45 El tiempo.
15:55 El auténtico Rodrigo Leal.
16:30 Pasión de Gabilanes.
18:00 Estoy por ti.
19:00 El diario de verano.
20:15 ¿Quién quiere ser millonario?
21:00 Noticias 2.
21:45 El peli. *Dr. Dolittle*. Zuzendaria: Steve Carr. (2001). Aktoreak: Eddie Murphy, Kristen Wilson. Dolittle doktoreak onartu du animaliekin berba egiteko gaitasuna duela, eta animalia talde bati laguntzeko erabakia hartzen du, animalia horiek etxebizitza gal dezakete eta.
23:45 7 días, 7 noches saioa. Teresa Viejoarekin.
01:30 Noche de impacto.
02:30 Noticias 3.
02:50 Televenta.

Tele 5



Ana Rosari ere amaitu zaizkio oporrak

10:45 Oscar Martinezekin eta Maxim Huertarekin batera lanera bueltatuko da Ana Rosa Quintana aurkezlea.

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica.
10:45 El programa de Ana Rosa.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Begoña Chamorroarekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vázquez eta Carmen Alcaydarekin.
16:30 A tu lado. Emma Garciarekin.
18:45 El pasado es mañana.
19:30 Alla tú. Arturo Vallsekin.
20:30 Informativos Telecinco.
21:15 Operación Triunfo (laburpena).
22:00 C.S.I Miami. *El hijo perdido*. Itsasontzi batek zubi batekin talka egindakoan hasiko dira Horatioren gizonak lanean. Hildako bat aurkitzen dute itsasontzi horretan, eta badakite hiltzaileak uretara egin zuela salto.
23:00 C.S.I New York. *Complicaciones*.
01:00 Justicia ciega.
03:00 Madrugada de cine. *Juegos de amor y muerte*. Zuzendaria: Noble Henry (1995). Aktoreak: Julie Strain, Michael Meyer.
24:30 Infocom.

Astean GOITBn

Astelehena, 5



'Harmailatik' | 21:00, 22:30

Joan den denboraldiaren gainbegiratu

Denboraldi berriarekin hasi aurretik, Harmailatik kirol saioan Julen Iriondok joan den denboraldian izandako kirol hitzordu nagusien gainbegiratu egingo du.

Martitzena, 6



'Jaiak 2005' | 21:30, 23:00

Aretxabaletako jaien gainean saio berezia

Abuztuan ospatu dituzte Aretxabaletan Andramari jaiak, eta saio berezia gertatu dutenek Andramaitan egongo bazinate moduko sentiaraziko zaituztete.

Eguaztena, 7



'Chiloé' | 21:00, 23:00

Hego Ameriketara bidaia, Venezuelako lurraldera

Maider Eguesek eta bere lantaldeak graziatzko lurrera eramango gaituzte eguazten ilunkeran, Venezuelara. Lurralde horrekin hasiko dute denboraldi berria.

Eguena, 8



'Berriak' | 22:00

Eskualdeko informazioa beste inon baino hobeto

Berriakizeneko albistegiarekin Debagoienean gertatzen den guztiaren berri izango duzue egunero. Irailaren 12tik aurrera hasiko dituzte eguerdiko albiste aurrerapenak.

Egubakoitza, 9



'Marrazki bizidunak' | 13:50,

Kazetari ausartak, Lazkao Txiki eta...

Iratxo magikoaren abenturekin poz-tuko dituzte gaztetxoenen eguerdiak. Eguerdian bakarrik ez, 20:30ean ere marrazki bizidunak izango dira eta.

Irailak 5a: 054 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, irailak 5, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

REALA-EIBAR futbol partidurako bost sarrera (saridun bakoitzendako bina). Partidua Kilometroen alde izango da irailaren 7an, Atxabalpe futbol zelaian, 18.00etan.

- Urkiola jantzi denda (Bergara)
- Jone Beitia (Arrasate)
- Jesus Narvaez (Arrasate)
- Angel Bergaretxe (Arrasate)
- Remigio Agirrezabalaga (Bergara)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Jose Antonio Maiztegi (Oñati)
- Begoña Otxoa (Oñati)


IPUIN KLASIKOAK liburua

- Igone Ajuria (Arrasate)

Irailaren 12ko sariak

- **SAMSUNG** etxeko telebista (21").


- Sei gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bina).



TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**



Hamarrekoa

JON MOLINA | ABADEA

"Nire lehen meza Aretxabaletan izan zen. Ondo joan zen baina pasa-pasa eginda nengoen"

Larraitz Zeberio

1. Oporrik hartu duzu uda honetan? Abuztu osoa hartu dut jai. Batera eta bestera ibili naiz. Tunezen, Alemanian eta Madrilen egon naiz.

2. Kolonian egon zara Aita Santu berriarekin. Zer iruditzen zaizu Benedikto XVI.? Kargua hartu berri du eta ikusteko dago oraindik zer emango duen.

3. Txikitatik datorkizu bokazioa? Ez dakit zer erantzun. Txikitatik agian ez, gehiegi esatea da. Gaztetandik esango dugu. Hobeto.

4. Eliza katolikoan aldatu egingo zenuke? Batzuk bai. Ebanjeliotik ahalik eta hurbilen bizi beharko luke elizak. Estruktura, antolakuntza eta eguneroko funtzionamendua guztiz bestelakoak izango lirarteke.

5. Bada komentuarik betetzen ari direla esaten duenik. Ez da hori nire ustea. Gure inguruan behintzat ez da horrela. Toki jakin batzuetan eta arrazoi berezi batzuk medio agian bai, baina ez hemen.

6. Zergatik utzi zenion Aretxabaletako txino dantzaz ateratzeari? (barre). Txikitik Loramendi dantza taldeko kidea nintzen eta asko gustatu izan zait beti dantzan egitea, baita mozorrotxea ere. Seminaria joan aurretik Loramendi nagusiendako talderik gabe gelditu zen. Orduan utzi nuen. Dantza uzteak ez du apaiz joatearekin inongo zerikusirik.

7. Nola jokatu du jendeak hain abade gaztea ezagutzera? Aurreiritziak ditugu? Hasieran, lehen aldiz ikusterakoan, askok ez du sinistu ere egiten. Ez da ohikoa. Esan beharra daukat, baina, ez dudala inoiz erreakzio ezkorrik jaso. Alderantziz esango nuke.

8. Tarragonako abade batek rock taldea osatzen du eta bera da abeslaria. Ebanjelioa zabaltzeko garai berriak datozen seinale edo xelebrekeria zure iritziz? Beti egon dira karisma eta sentsibiltate ezberdinak elizaren barruan. Apaizen artean ere bai, nola ez. Xelebrekeri puntu bat izan daiteke, baina beti egon izan dira gauza bitxiak elizaren barruan. Gehiago ere egongo dira.



AINTZANE AGIRRE

Duela sei urte ordenatu zen apaiz Jon Molino. Uribarri eta Bedoñako parrokoa da 35 urteko aretxabaletarra eta San Andresko arduraduna. Arrasaten ondo moldatzen dela esan digu. Hasieran etxetik hain gertu izateak kezka puntu bat sortu ziola aitortu digu baina azkar konturatu zen aurreiritziak besterik ez zirela. Egunero ematen du meza. Domeketan, berriz, hiru egiten ditu.

9. Gogoratzen duzu emandako lehen meza? Aretxabaletako parrokiak izan zen. Egun handia izan zen niretzat baina pasa-pasa eginda nengoen. Zorionez dena zuzen joan zen, inongo akatsik gabe.

10. Arantzazuko bederatzirueneretara joaten zara? Urtero. Balio sinboliko ikaragarria dauka Arantzazuk fededun izan ala ez. Handitze lanak aurrerakuntza garrantzitsua dira.



Biharamuna

Edu Mendibil

Bidali gabeko postala

Aruten etxetik gertu ibili naiz abuztuko oporretan eta lagunei-eta ez diet postalik bidali. Zuhaitzi tabernakoekin ere kale egin dut behingogatik. Hau burua! Edozelan ere, zorionak! Arriaran *sistersi* eta Espoloiko lagun denei, tabernaren 20. urteurrena horren ondo ospatzeagatik. Bueno, ba berandu bada ere, toki xarmangarrien bateko argazkirik eta seilurik gabeko postaltxo hau lagunei eta, bide batez, zu bezalako irakurle kuriosoei zuzenduta doa:

"Aupa, jende! Zer moduz zabilzate ba? Hementxe, ondo. Eguraldi bikaina, hotela primeran (amaren marmitakoa zer esanik ez), hondartza ederrak inguruan... Aparteko nobedaderik ez. Aurreko baten Zarautzera egun pasa joan eta herritar mordo bat ikusi genuen. *Iepa!* eta *iepa!* malekoian zehar. Zer zen hura! *Euskal Marbella!* Porzierto, *Pitu*, horren gustuko duzun neska hori inoiz baino *guapiaua* zegoen. Zein ondo ematen dien azal beltzak batzuei! Bueno, denoi... Baita **Aita Santuari** ere! Lastima jertse-denboraldia hasiko dela laster...

U2ren kontzertua, mundiala! Futbolaz hobe berbarik ez egitea: Realarekin sufritzea tokatuko zaigu aurten ere... Ea ba, zortedunok ondo-ondo bukatu oporrak eta besteok gogor hasi ikasurtea. Nik, badaezpada ere, ez ditut bainujantzia eta txankletak gorde. **Udalako** igerileku xarmangarrian bainua hartzeko zain nago oraindik. Musu potolo bat eta laster arte".

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak • Posta-e: azabarte@goiena.com • Tel.: 943 76 92 70

www.goiena.net/blogak/4quattro4
www.goiena.net/blogak/arregi
www.goiena.net/blogak/atai
www.goiena.net/blogak/azkarate
www.goiena.net/blogak/joseba
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
www.goiena.net/blogak/gallastegi
http://www.goiena.net/blogak/garaia

http://www.goiena.net/blogak/guztizeder
www.goiena.net/blogak/korozabaleta
www.goiena.net/blogak/ohiak
www.goiena.net/blogak/vitoria
www.goiena.net/blogak/pando
www.goiena.net/blogak/udalatz
www.goiena.net/blogak/udalaitz

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

